

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1990eko Martxoak 9, 55. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



MARTXOAK 8


M. ERRASTI:
"Berdintasunetik
oraindik urrun"

ERREPORTAIA:
Superemakumea
sortu nahian?

SIXTIES:

Hamarkada bat
desmitifikatzen

Josemari Velez de Mendizabal



Arrasate
Kirolak

Kontzeziño 8, ARRASATE. Tfnoa: 78 46 12



ARRASATE TELEBISTA

Frogatan bada ere, honez gero hasi gara emititzen. Hilabetez edo, horixe egingo dugu, frogatan emititu, Arrasateko etxe guztietan seinalea ondo hartzen dela jakin arte. Hasieran albiste saioak bakarrik emango ditugu eta, asteak aurrera joan ahala, programazioa osatuz joango gara.

Badakizu non aurkitu

ZURE TELEBISTAREN 23. KANALEAN, UHFen

Oharra: Monokanaldun antena duzenok 23 kanaleko anplifikadorea jarri beharko diozue, ATBren seinalea jaso ahal izateko. Badaezpada ere, kontsulta ezazue zuen antena jartzaillearekin.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA



Perestroika eta XV. mendea

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)

Azoka kalea 1,

20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza

Bego Zubia

Publizitatea eta harpidetzak:

Josuné Biteri

Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix Diaz de

Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de

Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele

Zuazubiskar, Patxi Montero,

Juan Martin Elexpuru, Eukeni

Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo

Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus

Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo

Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,

Joseba Vallés, Karmelo Urizarren,

Iñaki Aranburu, Hankamotz,

Maite Toledo, Atalaitaikoan.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 6.100 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eriztzen erantzunkizunik.

Historiak, orain arte behintzat, bere zikloak markatu ditu, horien arteko antzekotasun paregabea azaleraziz eta historiegileengan harri-durazko ikurra sortuz. Ziklo horiek ez zaizkigu, noski, beren nolakotasun guztietan parera iristen. Gizonak hain aldakorak izanik, pentsatu behar da gutxieneko baldintzetan ere giza kondairako prozesuaren nondik norakoak desberdin ditugula. Baina, funtsean, mendetan zehar bere biologi erreakzioetan gizona izaki berdina izaten mantendu da.

Sobiet Batasunetik igortzen didaten aldizkari bat irakutzen dut hilero. "El libro y el arte en la URSS" titulupean, sobietarren Egileen Eskubi-deetarako Agentziak argitaratutako aldizkari horretan, literatura eta arte plastikoaren gaineko albisteak aurkezten dira. Alez ale, perestroikaren inguruan ematen ari diren pausuk azaltzen dituzte eta, egia aitortzera, edukinaren arauera erraldoia omen da bost urtetatik hona sobietarren intelektual bizimoduan somatzen den aldaketa.

Perestroika eta eztabaida kontzeptuak bihurtu ei direlarik. Urriko iraultza, gerra zibila, Europako gerra handia, aberria, kultur garapena, historiografiaren akatsak... eta orain

arteko klitxe guztiak zalantzan ipini dira, estalinismoaren garaiko pertsonalitatearen kultura hankaz gora jarriz. Ehundaka dira, hilero hilero, sobietarren historia hurbila "zuzentzeko" argitaratzen diren liburua. Espezialitate guztietako artistak, berriz, iraultzaren mezu desberdinaren bila ari dira, azken hirurogei urteotako desbideraketak salatzuz.

Erdi Aroan, horren gisako mugimendu indartsu bat bizi izan zen Europa osoan. Ikasketa eta kulturaren bidez, errege eta enperadoreen gehiegikeriak kontrolatu nahi izan ziren. Zibilizazioaren garapenak arteak suspertu zituen eta amesgaizto batetik iratzarri zen basa-gizarte hartan kulturaren menderik oparotsuenei eman zitzaizen hasiera. Gazteluetako hormetan pintura eta tapizek armak ordeztu zituztena; emakumearen erantzunkizuna goratu egin zen; jakintzaren egarriak bizimodu arrunta kutsatu zuen; erregeak artista bilakatu ziren; kardenalak trobadore.

Askatasunaren kontzientziak adimenaren erabilpena exigitzen du, historiako ziklo guztietan. Hamabostgarren mendean bezalaxe, baita gure egunotan ere.

Josemari Velez de Mendizabal

**UGARAN
jatetxea**

Garagarza auzoa - 1/797654 Arrasate

**enpresa
bazkariak
eta famili bilerak**



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa:799457



Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA



MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

**MUSAKOLA
OSTATUA**

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

Gluzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

Arrasate Press-i

Hartu ditut zuek bidalitako azkeneko lau aldizkariak. Mila esker!

"Arrasatek" hizkera garbia eta gaurkoa darabil. Gaiak ere, era askotakoak eta interesgarriak. Guk, hemen komentuan badugu eusko-liburutegi bat eta liburuzainak nahi izango luke ale guztien bilduma osoa eduki. Zuek bidalitakoak bakarrik dauzkagu: 48, 49, 50 eta 51 zenbakiak. Ez ote litzateke posible izango beste aurreko 47ak bidaltzea? Agiri baliagarria gerta daiteke Arrasateko kondairari buruz. Hala eta guztiz ere, ezinezkoa balitz, ez arduratu. Pozik eta eskerronetan hartuko ditugu hurrengo aleak.

Berriro ere, mila esker eta jarrai lehiatsu zuen lan txalogarri horretan! Zuen lagun

*Rogelio Ballona Ansoategi
Donostiako Kaputxinoen
Anaidia*

Zorionak Arrasate

Zuzendari jauna:

Ni ez naiz arrasatearra, baina bai, lagun bati esker, Arrasate Presseko irakurlea. Normalean astero hartzen dut zuen aldizkaria eta benetan esan behar dizuet, oso gustora irakurtzen dut. Bai soldadutzan eta lanean ere, Arrasateko lagunak izan ditut eta horregatik zuen herriarekiko interesa.

Lehen harrিতa banengoen nola demontre zen posible horrelako herri batean halako astekaria plazaratzen duzuela ikusteaz, orain aho bete hortz nago herri telebista ere euskara hutsean jarri duzuela jakitean.

Irakurri dudanez, Arrasateko Udalak ordaindu ditu inbertsio gehienak, bai aldizkariaren hasieran eta baita orain ATBren kasuan ere. Zuek daukazue txoiloa horrelako Udalarekin! Esan nahi dut zuen herria harro egon daitekeela halako proiektuak martxan hain sutsu lagundu duen Udalaz. Hemen behintzat ez dugu horrelakorik, eta ez dakit inoiz izango ote dugun.

Eredu bihurtzen ari zarete arrasatearrok. Kooperatiben inbentoz gutxi bazenuten, orain ondo komunikatzeko aparteko trebetasuna erakusten ari zarete.

Zorionak denoi eta segi aurrera!

*R.Aizpurua
Donostia*

"No existe esta calle en Bilbao"

Aurreko baten Bizkaiko Euskal Herrian Euskaraz-eko bulego zentraletik igorritako eskutitz bat jaso genuen Arrasaten, beronen bidez kaleratu berri dugun JAZTEN aldizkaria eta "Un futuro para nuestro pasado" liburuaren aurkezpen gisa kaleratutako hiru bideo zintak eskatzen zizkiguten, eta baita zein helbidetara bidali behar genuen adierazi: Dendarikale 9, 2.A


Helbide horretara bidali genituen eskatutakoak, baina gure harridurarako egun batzuk igaro ondoren, hara non jasotzen dugun berriro ere paketearekin batera bidalitako eskutitza: "No existe esta calle en Bilbao" esaten ziguten "Correos"-etik.

Jarri gara herremantean EHE-koekin, eta baietz, "Tendaria"rekin batera "Dendarikale" kalea bera ere ofiziala dela Bilbon, horrela onartu zuela Udaletxeak eta euskarazko izena ere agertzen dela kalean barrena, hainbat hormatan.

Honez gero imajina dezake irakurleak gertatutakoa: Udaletxean erabaki egin zuten, baina jakinarazi al zieten Correos-ekoei euskarazko izen ofiziala? Eta jakinarazi bazieten zergatik ez dago oraindik ere jakinaren gainean "No existe esta calle en Bilbao" tanpoikada eman zuena? Nork dauka erantzunkizuna?

Ofizialtasunak gorabehera, kontua da euskaraz bizi nahi izateagatik ez-ofizialak garela, inexistenteak omen, eta amorraldi galantaz eta txanpoi extra batzuk xehatuagatik, hor joan zaie berriro ere eskutitza Dendarikalera. Ikusi egin behar!!!!

AED Elkartea



Zuk hartuko zenuke euskara ikasleren bat zure etxean?



Joxe Sagasta
(langilea)

Bai, euskararen alde egiteko baldin bada, prest egongo nintzateke.



Josefa Iturriaga
(langilea)

Ondo ikusten dut, baina ni etxean bakarrik bizi naiz eta ez dut uste hartuko nukeenik. Bestela ere makinatxo bat zeregin dut.



Maribel
(etxeakoandrea)

Bai, euskararen alde lan egiteko baldin bada, euskara galdu ez dadin izanez gero, baietz uste dut.




Pello Aramaio
(langilea)

Euskararen alde egiteko modua baldin bada, behar bada bai.

LENIZ

AUTO ESKOLA



LASTER: AUTOBUSA ETA KAMIOIA

ARRASATE - ESKORATZA

Memesa

79 42 22

KOPIOTXOA

Fotokopiak

Planu-Erreproduzioak

Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

Lanbide
Heziketarako
Zentrua



TITULU OFIZIALA

Tfnoa: 945-23 33 99

General Loma enparantza 4, Gasteiz

ILEAPAINDEGIA

ESTETIKA

**Kurtso hasiera
apirilean**



**BELUN
taberna**

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 88 96
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZANTZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------

9 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Tango y Cash". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Melodía de seducción". 10,30etan.
- Goardiako farmazia: Corcuera.Musakola

10 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Tango y Cash". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Novedades: "Neva Wixens" 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Pallasoa: Kakax, Kokox eta Kiriki pallasoak. Amaia antzokian arratsaldeko seietan.
- Bideo-emanaldia: "Poliziakademia eroa II". Monterron kultur-etxean, 4etan eta 6etan. 50 pta.
- Sevillana exhibizioa. Ostarku dantzalekuan, Mambo 1ek antolatuta.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

11 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Tango y Cash". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Novedades: "Melodía de seducción". 5, 7,30 eta 10,15etan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Sta. Marina

12 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Tango y Cash". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Melodía de seducción". 7,30etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Madalena.

13 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Tango y Cash". 7 eta 9,30etan.
- Hitzaldia: "Eki Europako herrien egoera gaur egun". Andrea Szego-ren eskutik (Budapesteko zientzi-akademiako irakaslea). Ingelesez. Aidibereko itzulpena izango da. Monterronen, arratsaldeko 7,30etan. AED elkarteak antolatuta.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales. San Andres.

14 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: ez dago emanaldirik
- Hitzaldia: "Mendebaldeko herrien autodeterminazio eskubidea". Eva Klotzen eskutik (Soziologoa. Hego Tiroleko Parlamentuko diputatua). Alemanez, aidibereko itzulpena izango da. Monterron hitzaldi aretoan arratsaldeko 7,30etan. AED elkarteak antolatuta.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferreñas.

15 OSTEGUNA

- Zine-klub. "Pelle el conquistador". Amaia antzokian, arratsaldeko 8,30etan.
- Hitzaldia: "Seguritate eskolan eta etxean". San Frantzisko Xabier ikastola antolatuta. Hitzaria: Guillermo Ojenbarrena. Arratsaldeko 5etan irakasleei zuzendua. Arratsaldeko 7etan gurasoei zuzendua. Gasteluondoko ikastola berrian.
- Goardiako farmazia: Español. Iturriotz.

IKASTAROAK

- **Zanko ikastaroa** Aizpurutxu taldearen eskutik. 14 urtetik gorakoentzat. Egunean 2 ordu, arratsaldez. Plaza mugatuak. Izen ematea Arrasateko Gazte-zerbitzuan.
- **Fandango jota eta arinarina**. 12 eta 14 urte bitartekoek zuzendua. Martxoaren 22 hasi eta hilabetez. Informazioa Udal Gazte Zerbitzuan.
- **Sevillana ikastaroa**. Martxoaren 17tik aurrera, larunbat eta igandetan. Musakolako aretoan. Izen emateak Kirodegiko bulegoetan.

MENDI IRTEERA

- **Etxaurre-Sarbil-Munartz**. Besaide mendizaile elkarteak antolatuta. Irteera Martxoaren 11an, goizeko 7etan. Izen ematea Besaide mendizaile elkartearen lokaletan.

ERAKUSKETAK

- **Luis Laskurain** pintore bergararrak, hile honetan zehar, bere lanaren erakusketa izango du, Bergarako Kultur-etxean. Oieoz, 22 lan.
- **Estibalitz Ormaetxea** pintore arrasatearrak Donostiako KAI Galerian erakusten du. Martxoaren 22 arte. Joan de Bilbao kalean.

Indarberritu den leoi arrasatearra



RONEO

■ Leioak normalean 30 urte hartzen baditu ere, Arrasateko leoi honek 61 bete ditu dāgeneko, eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartu nahi luke.

• 1929. ean **RONEO**k, hizkuntza inglesa medio, bulegoetarako haltzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta, etorkizunean berdintsu jarraitzeko, indarberritze sasoi heldu zaio.

• 1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**-rentzat, planta guztiz berria zabalduko du Arrasaten, 2.900 m²koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituelarik.

• Disenuan ere aldaketa nabaria egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aukietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere, orain produktuak exportatzen ditu.

RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.

RONEO UCEM

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza

“ Beste hainbat euskal herritan bezala, Durangon ere sortu da euskara plazara, dantzara, edonora, eguneroko zereginetara, aterbe nahiz kalera hedatu nahi duen talderik. “Berbaro” izenaz, egin berria du lehen aurkezpen publikoa, helburu eta egitasmoak aldarrikatuz. Dudarik ez, bazuten alde aurreko erreferentziarik, eta guztietan ezagunena, Arrasatekoa. Herri honetan aspalditxoan lanean bait dabil “Arrasate Euskaldun Dezagun” taldea, durangarren ispilu suertatu dena (...) Arrasatekoak bezala, Durangoko euskaltzaleek ere aldizkari bat dute amets, eta premiazko helburu. Ari omen dira ahaleginetan”

(X.L. Kazetariak “Hemen” astekarian)


“ Ekialdeko kolektibismoaren krisia nahiko penaz ikusten dut nik. Kapitalismoaren gehiegikeriak arbuigarriak dira: lukroa gauza guztien gaintik, konpetentzia suntsitzailea, izugarritzko marjinalitateak uztea, izugarritzkoak, mundu mailan biztanlegoaren bi heren. Horren soluziobide totalista kolektibismoa zen, zoritxarrez uste dut porrot egin duela. Nire eritziz, kapitalismoak baino eginkortasun gutxiago eduki duelako. Zergatik? Kolektibismoak neutralizatu egiten du, komunitateak berdindu egiten ditu eta berdintasun hori beti ahalmen gutxien duenaren mailara egiten da”.

(Alfonso Gorroñogoitiak “Argia” astekarian)

“ Hain zuzen ere, Arrasate Press bezalako esperimentzien ondoan, elementu garrantzitsua dauka Ttppi-ttappak bere alde: behetik gora sortutako inizatiba dela, horrek ezinbestean suposatzen dituen ondorio agerikoekin”

(Josu Landak “Argia” astekarian)

Zein helbururekin eta zergatik sortu duzue, Al Andalus kultur elkarteak?



Elkartearen helburu nagusiak, Estatutuetan aditzera ematen denez, Andaluziako Eguna ospatzea eta urtean kultur aste bat burutzea dira. Edonola ere, gure helburua zabalagoa da. Gure nahia, hemen bizi diren andaluzen artean Andaiuziako kultura hedatzea da. Elkarte sortzeko asmoak arrakasta handia izan du dagoeneko ehun bazkidek osatzen dugulako elkarte. Bazkide kopuru hau handitzea espero dugu eta hirurehun-laurehun bazkide izatera heltzea espero dugu. Gure iharduera Leintz bailara osora zabalduko da. Egoitza Arrasaten izango dugun arren, Leintz bailarako andaluzak bilduko dituen gunea izatea espero dugu eta. Deba Garaiko andaluzen arteko elkartasuna bultzatzea da gure asmoa.

Oraingoz ez dugu egoitzarrik, baina datorren hilabeterako arazo hau konponduta izatea espero dugu. Egoitza hirigunean egotea nahi izango genuke, baina alokairuak oso garesti daudenez, auzoren batean jarri beharko dugu oraingoz. Edonola ere, urte bi barru edo, hirigunea pasatzeko asmoa dugu, auzo desberdinetako jendeak bere burua baztertua ikus ez dezan.

Andaluziako Juntarekin harremanak izango ditugu, Euskadiko kultur-elkarte andaluzen federazioan sartuko gara eta. Eta federazio honek harreman zuzena du Andaluziako Juntarekin. Hiru hilabetero, gure ihardueraren berri eman beharko diogu Andaluziako Juntari, honek dirulaguntza eman diezagun. Elkarteko Estatutuak, Eusko Jaurlaritzak eta Andaluziako Juntak onartu beharko dituzte, onespen ofiziala izan dezaten.

Rafael Gomez

Al Andalus kultur elkartearen lehendakaria



**ARAMBURU
COTEMAR**

garraio agentzia

Zaldizpe 3, Tfnoak 79 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

URRATS

AHOLKULARITZA

CARIBAI 3,
Tfnoa: 79 87 74 ARRASATE



HAURTXOA
ARANBURU

Arrasate Pasealekua, 4
79 14 90 ARRASATE

ALTUNA

Lurrindegia
bisutegia
drogeria

Maalako Errebala
Tfnoa: 79 14 23

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**



Gipuzkoa Etorbidea 22,
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

Rockari buruzko eztabaida

Musika taldeak eta Arrasateko Udala harremanetan

Larunbat arratsaldean, Monterronen elkartu ziren Arrasateko rock taldeen eta Udalaren ordezkariak.

Elkarrekin egindako lehen bilera honetan hainbat gai jorratu zituzten, baina akordio zehatzik lortu gabe.

Lehenik, entseiegune apropos bati buruz aritu ziren. Udalak, Epeleko ur-depositua egokitzen dihardu; baina mendian gora dagoen txoko horrek hainbat arazo sor ditzake taldeentzat, batez ere musika tresnak garraiatzeko orduan. Batzuk bere kontura bilatuko dituzte lokalak, eta beste batzuk, osterara, Epeлера joango.

Aurrerago, inguruko rock talde



guztiekin txapelketa bat antolatzearen posibilitatea proposatu zen,

baina aurrera irten ez. Horren ordez, Rock erakusketa antolatzeko aukera hartu zuten kontuan.

Talde bakoitzaren abesti batekin diskoa kaleratzeari buruz ere aritu ziren. Dena dela, kontu garestia da hori, eta ikusi egin behar zertan gelditzen den.

Esan bezala, erabaki garbirik ez. Halere, ikuspegi batetik behintzat positibotzat jo daiteke larunbateko bilera.

Hasiak dira Udalaren eta rock taldeen arteko harremanak, eta agian, bide horri eutsiz hel daiteke akordioaren bat biharko egunean.



Bertso-afaria Sebastian Lizasorekin

Noizean behin, AED Elkarteak bertso-afariak antolatzen ditu ostiral gauearako.

Pasa zen ostiralekoan, moduan Sebastian Lizaso hurbildu zen gonbidatu Umore on eta saltsa ederra. Azpiciarrak argi erakutsi zuen bere maixutasuna, eta han elkartu ziren berrogeitamar bat lagun. Sebastianek makina bat zirkada sartu zituen, azkenean beste hainbat bertsolari ere berotu zituelarik: Jon eta Aitor Sarasua, Iñaki Isarzelaiia, Arantzazu Loidi, Goikolea, etab. luzea.

LORAMENDI  KIROLAK

BEHERAPENAK

AZKEN EGUNAK

%10etik %50era bitarteko deskontuak
kirol zapatilatzen


Zubiaren eta
OSO GAUZA
BEREZIAK

Zerkaosteta 8

Zunbeltz

Simon Arrieta Enparantza 2,
BERGARA

Metal sailaren Greba

CCOO, UGT, LAB eta ELA sindikatuen deialdia segituz, Gipuzkoako metal-industriak Greba Orokorra egin zuen asteartean.

Arrasate eta inguruetan, ia enpresa guztiak irten ziren kalera. Salbuespen bakarrak Gelma, Trefasa, Mugarrí eta Aretxabaletako Azbe-Zubia izan ziren.

Grebaren arrazoia, langileek metalaren konbenioarekin erakusten duten desadostasuna litzateke; dirudienez, *Adegui* patronalak ez du onartzen lanorduen kopurua jaistea (horra hor arazoaren muina).


Astearte goizean, lehenengo orduetatik metal-saileko langileek piketeak egin zituzten; gero, eguerdiko hamabietan berrehun bat lagun elkartu ziren, Bergaran burututako Deba Garaiko manifestaldira.

Sindikatuak positibotzat jotzen dute grebak izandako arrakasta, eta itxura denez, prest daude *Adegui* patronalarekin berriz mahaiari eserri, eta elkarrekin arazoari irtenbideak aurkitzeko.



Txandaka

Gazteen ezinegona



Paulo Letona (*)

Gazteriari buruz zer-bait idaztera noa, baina zer idatzi pentsatzen hasi naizenean gai zaballegia iruditu zait. Konturatu naiz mugatu beharra daukadala. Gazteria eta jolasak? Dirua? Ikasketak? Telebista? Eta horretaz dihardudala, gazteak ere aldatu, bilakatu egin direla konturatu naiz, eta asko.

Gure gaztaroan gosetik irteten ari ginen. 40. hamarkada joanik, Europako gerratea bukatuta baina Plan Marshall hartan sartu gabe eta nahikoa jan gabe urte askotan, behintzat.

Euskaraz egiten lanak ziren, idazten gehiago, hainbat ospetsu eta baliotsu erbestean eta bertakoak isilik. Aberastea erraza zen batetik, negozio bat jarri eta lagun batzuk izanez gero, behintzat, dirua egiteko aukera aski zeuden, gero askoren dirubide ustela agertu bazen ere.

Gure ardura Euskadi eta euskara aurrera ateratzea zen, baita aberatsen eta pobreen arteko aldeak salatzea ere. Injustiziak eta askatasun eza salatzen aritu ginen. Hori bai, isil antzean, bestela egurra bait zegoen.

Gero 60. hamarkada hasi zen. Benetan hamarkada interesgarria eta niretzat historiara pasatuko dena. Nork ez du gogoratzen 68ko iraultza edo matxindada Parisen eta Europa guztian hedatu zena. Baita Iparramerikan ere Hipien mugimendua. Askatasuna nahi zen familia aldetik, politika aldetik, sexu aldetik, askatasun osoa.

Auto eta beste tresna sofistikatuei bizkarra ematea nahi zen. Beste era batera bizitzeko erak asmatzea nahi zen. Baina poliki poliki teknika eta publizitateak zanpatu egin zuen. Baita agian orduko mugimenduaren nagikeriak ere.

Eta 70. hamarkadan krisiak jo gintuen. Inork ez zuen uste, ezin zen sinistu hainbat urtetan zientziak eta teknikak sortutako tresnak asmatu eta azkena joko zutenik. Lurrak eta lurpeak ematen zuten baino gehiago kontsumitzen ari ginela esan ziguten. Ez genuen berehala sinistu.

Eta oraindik hor jarraitzen du krisiak eta lanik ezak. Poliki poliki iraultzarako asmoak eta garrak itzaliz joan dira. Orduan hasi eta 80. hamarkadan ere iraultza soinurik oso gutxik jotzen du, ez dago.

Denok dagoenaz konformatu egin gara. Teknika eta zientzia larregi aipatzen delakoan nago. Teknika eta zientzia noizentzat? Galdetu behintzat.

Egia da antimilitarismo bat bada-goela, ekologiaren ardura ere bai. Baina gazteei inkonformista eta bihurri indartsuagoak izan daitezela eskatuko nieke. Bestela, nor izango da?

Ondo dago lana egitea eta egiten da gazteen artean, ikasi ere inoiz baino gehiago. Baina nork aldatu mundu hau gazteen protestarik gabe?

(*) Abadea

GATZAGA
Jatetxea

**Arrasateko
jatetxea**

Olarte kantoia 3,
Tfnua: 79 84 53

**Osorik
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

Euskarak irabaziko du zuk ere bai



Egonaldiak familia euskaldunetan

Hilero, eta ikasle bakoitzeko 50.000 pta ordainduko

Eusko Jaurlaritzako Euskara Arazoetarako Zuzendaritzak, orain bost urte ekin zion "Egonaldiak Familia Euskaldunetan" plangintzari; egitasmo horren helburua, euskalduntze-ahaleginetan diharduen orori ahalik eta laguntzarik handiena eskaintzea.

Gauzak horrela, otsailaren 14ean kaleratutako aginduaren bidez, plangintzan parte hartzea interesatzen zaien familia euskaldunei dei egiten zaie; era berean, lege horren bidez familiek jasoko dituzten benen diru-kopuruak arautzen dira.

Esan beharra dago, ordea, otsailko aginduak argi zehazten duela nongo familiak nahi dituzten, egitasmoa aurrera eramateko; Arrasatek ez du lehentasunik izango. Aramaio, Aretxabaleta, Eskoriatza, Gatzaga, Oñati, Bergara, Antzuola

eta Elgetako sendiak, ostera, Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jar daitezke, hala nahi izanez gero.

Plangintza 1990eko uztailetik azarorarte gauzatuko da, pertsona bakoitzaren egonaldia hilabetera mugatuko delarik.

Familiakide guztiek euskaraz egiten jakin behar izango dute.

Sendiek, hilabete bakoitzeko pertsona bat besterik ez du hartu ahal izango; era berean, argi utzi behar da emakumezko zein gizonezkoa aukeratzea posiblea bada ere, gero Euskara Arazoetarako Zuzendaritzak egokia deritzon pertsona derrigorrez onartu beharko dela.

Inskripzio-fitxak aurkezteko azken eguna martxoaren 31 izango da, eta aipatu ere, hilero eta egonaldia buruturiko ikasle bakoitzeko 50.000 pta. ordainduko direla.


Usteak uste...

Garraio sailburuak adierazi berri duenez, Donostia, Gazteiz eta Bilbo abiadura handiko trenaren bidez Europarekin lortu behar zituen Y famatua ez da 2.000. urterarte egingo. Gure pozak putzura joan dira, amets zoroen modura.

Aurten bat egin dut goizero-goizero Bizkaitik berebil ilada luzean Kanpartzatik zehar Arrasatera datozen goiztiar lokartuen tribuarekin. Elorrioko fundizio usainak utzi (herri polita izan arren, han ere txakurrak ortozik) eta, ahalik eta lasterren etortzen saiatzen naiz. Aurrera segitu aurretik, askotan Kanpartzatik Udalaiz gorri edo zuri ikusteak, auskalo, zeren goizero ematen bait digu sorpresaren bat, bidaiak konpentsatzen duela esan behar dizuet.

Behin Gipuzkoan sartuta, Saratik Arrasateko zuloa ikusten da, edo suposatu han dagoela, lainopean bait dago, eta hain da zulo zeren normala bait da pentsatzea ea botxo horretatik zerbait atera daitekeen. Bihurgunez jositako bide hau izango da Mondragoek duen asfaltoko biderik onena. Burdinbiderik ez du. Nola demontre atera behar dugu zulotik? Y greko horrek esperantza izpia ematen zigun, garraio astuna trenez ateratzeko besterik ez balitz, eta orain Lakua-ko Garraio sailburua etorri da eta denok somatzen genuena baieztatu digu. Galtzen dugun zenbatgarren trena ote da hau?.

Joxe Aranzabal



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**KIROLDEGI
JATETXEA**

EGUNEKO MENUA

ETA KARTA

Musakola Auzoa. 79 82 31



Ikastetxeetako matrikulaldia zabalik

90-91 ikasturterako; eskolaurre eta OHoko ikasleentzat

Dagoeneko, zabalik dago hainbat ikastetxetan datorren ikasturterako matrikulak egiteko epea. Hori dela eta, epe horiek iragarri nahi dizkizuegu, neska-mutikoen izenak lehen bait lehen eman ditzazuen.

San Viator: OHoko ikasleentzat, martxoaren 15a arte aurkituko duzue zabalik matrikula-epea. Informazio gehiago, 79 04 11 telefonon.

Umezaintza: Bost urtetik behar-rako haurrentzat, martxoaren 31 arte. 79 01 02 telefonon.

Merzedarixak: Martxoaren 16a arte, eskolaurre eta OHoko ikas-

leentzat. Informazioa, 79 20 92 telefonon.

Ikastola: Ikastolak ere zabalik izango du matrikula epea, martxoaren 16a arte. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Gazteluondoko ikastolara (edifizio berrira), edo 794122 telefonora.

Eskola publikoak: Hauek ere, martxoaren 16a arte. Xehetasun gehiago nahi duenak, jo Erguineko Eskola Publikora (79 77 74), San Andresekora (79 00 44), Ferixalekora (79 05 53), eta Musakolakora (79 04 49)

Zuhaitz eguna

Martxoaren 10ean ospatuko da Garagartzan 1990ko Zuhaitz eguna. Ospakizun horretara gonbidatuak daude ikastetxe guztietako 6. mailako ikasle, guraso eta irakasleak ere. Ekintzak goizeko 9,30etan hasiko dira, Garagartzako rugby zelaiaren ondoko haztegian elkartu eta gero.

Guztira 100 astiga, eta 50 pago eta haritz landatuko dituzte. Ondoren, ogitartekoak eta edari freskagarriak guztientzat.

Jaiotzak

Izquierdo Ortiz de Landaluze, *Arrate*. Otsailaren 23an.

Beloki Unamuno, *Imanol*. 25ean.

Gonzalez Carmona, *Ibai*. 27an.

Rivera Izurrategi, *Mikel*. Martxoaren 2an.

Alvarez Garcia, *Axier*. 3an.

Zabaleta Arrizabalaga, *Antton*. 4an.

Ezkontzak

Jose Pedro Amaral de Sousa País & M. Elena Garcia Garcia. Martxoaren 8an, zibilez.

Hildakoak

Candelaria Morales Luque

64 urte. Otsailaren 28an.

Teodora Uribe Goitia

84 urte. Martxoaren 1ean.

Simona Ortiz Crespo

78 urte. Martxoaren 2an.

Domingo Molinero Garcia

85 urte. Martxoaren 3an.

Ainhoa Zilaurren Elejalde

17 urte. Martxoaren 6an.

M. Paz Gorospe Muruamendiaraz

76 urte. Martxoaren 7an.



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa
metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko
armairuak
Lan egiteko aulkiak

VICTOR RUIZ MELGAR

Margolaria

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)

ARRASATE

BRANKA

jatetxea

Eguneko menua eta karta

ARRASATE PRESS

77 05 65

Txomin Iturberi omenaldia

Orain hiru urte Txomin Iturberen heriotzak sekulako zirrara eragin zuen, halakoxea zen eta Txominen itzala momentu hartan.

Txominen gorpuari Arrasaten egin zitzaion harrera ere ahazteko zailak diren horietakoa izan zen.

Dagoeneko hiru urte pasa dira, eta igande eguerdian bete egin zen Sebero Altube plaza, Iturberen heriotzaren hirugarren urtemuga ospatzera bildu zen jendearekin. Honako honetan, HBk soilik Deba Gairra zabaldu zuen deia.

Ekitaldiari txalapartariak eman zioten hasera. Ondoren mitin politikoa; bertan izan genituen hizlari



Xabier Zubizarreta, eta HBren Mahai Nazionalako partaide diren Joselu Zerezedeta eta Gorka Martinez.

Aitor Sarasua eta Jon Iñaki Izarzelaia bertsolariak, eta amaitzeko, berriz txalapartak entzun ziren.

Argazkilaritza taldea

Argazkilaritzan interesatuak zaudeten guztiok, badakizue astelehenean, 7,30etan, IMI zentruaren parean elkartuko direla argazkilaritza elkarte berria sortzekotan dauden hainbat lagun.

Liburutegi berriak

Udalak ia 2 milioi emango ditu bost auzo liburutegi egiten. Egitasmoa iaz tajutu zen, liburutegiak eskaintzen duen zerbitzua eta irakurtzeko zaletasuna zabaltzeko.

Bi liburutegitan hasiak dira lokalen egokitze lanak, Garagartzako auzo etxean bata, eta Musakolako alkatetzan bestea. Gainontzeko hirurak Santamarinan Erguinen eta San Andresen zabalduko dira.



Fagor-Thompson

Udaberrian sina daiteke Fagor eta Thompson enpresen arteko akordioa, zeinen arabera bi enpresa hauek EEEen euren presentzia indartu nahi duten. Hasierako helburua harremana sendotzea litzateke, bai ikerketa, bai banaketa, eta bai sare komertzialak indartzeko orduan. Aurrerago, badirudi asmoa produktuak elkartrukatzeko izango litzatekeela; hau da, Fagorrek Estatu Espainolean Thompsonen telebista eta bideoak komertzializatuko lituzke, eta alderantziz, Thompsonnek Fagorren hozkailu, garbigailu, sukalde eta labeak Frantzia salduko.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

baldana

Medikuntza orokorra

Txertaketak

Kirurgia

Laborategia

X izpiak


Odontologia

Ile apaindegia

Urgentzia 76 27 97

Koldo Elelalde 28, etxebeha.

Tfnoa: 76 27 97 BERGARA



Santagedako langileak haserre

Konbenio propioa lortzeko, asteartean greba

Santagedako Ospitale psikiatrikoa, *San Juan de Dios* anaidiak zuzentzen du. Elkarte hau, Eusko Jaurlaritzak klinika pribatuentzako sinatutako hitzarmenari atxekitua dago.

Itxura denez, Santagedako langileak ez daude batere ados konbenio horrekin. Hauen ustetan, Santagedako Psikiatrikoak akordio propioa beharko luke izan, euren funtzionamendu, zerbitzu mota, eta beste hainbat xehetasun argi isladatzeko.

Helburu hori betetzeko, 1989ko irailean enpresa batzordea sortu zuten, zuzendariei langileen nahiak azaltzeko; baina zuzendariak atzera

egin zuten, Osakidetzarekiko duten menpekotasuna medio (hau da, Osakidetzak diru-laguntzak ematen dizkio Ospitaleari, Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzaren hitzarmen orokorra onartu behar duelarik).

Horrela, Santagedako psikiatrikoko 3 sindikatuen (CCOO, ELA eta Independentea) deiarri segituz, 70 langileak ahobatez onartu zuten datorren asteartean greba egitea. Zerbitzu minimoak eskainiko dituzte soilik. Grebaren helburua, asteazkenean Osakidetzako ordezkariak Ospitaleko gerentearekin egingo duen bileran, gaia jorratu dezala.

Jose Ignacio Mora, Komunikabideetan buru-belarri

Itxura denez, Jose Ignacio Mora ez omen da geldi geratzen den horietakoa. Jose Ignaciok Iruñeko Unibertsitatean burutu zituen kazetaritza ikasketak. *TU-Lankide* aldizkariko zuzendaria izan zen, eta Lan Kide Aurrezkiko prentsa arduraduna ere.

1989ko azaroan, berriz, lan horiek utzi eta Madrilera joan zen, Nokia Data suediar enpresa multinazionalera. *Nuevo Siglo* aldizkarian, Manuel Campo Vidal TVEko aurkezle ospetsua ezagutu zuen. Badinudi Jose Ignacio Morak eder to aprobetxatu dituela Manuel Camporen aholkuak, eta dagoeneko, bi irratiren titularra da; *Amedokoa* (Erioxan) bata, eta *Binefarrakoa* (Huescan) bestea.



Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

KLINIKA DENTALA

DOANEKO AURREKONTUA

- * Odontologia orokorra
- * Protesi finkoa
- * Protesi mugikorra
- * Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

VE ECUADOR

Kontzeslifo 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

L ARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

Larunbatean Andaluzia Eguna ospatu

"Al Andalus" Elkarteak antolatuta afari ederra kiroldegian


Otsailaren 28an Andaluziak hamar urte bete zituen Autonomi Estatutua lortu zuenetik. Arrasaten bizi diren andaluziarrek ere euren eguna ospatu nahi izan zuten, eta sortu berria den "Al Andalus" Kultur Elkartearen eskutik, afari ederra antolatu zuten kiroldegiko jatetxean. Bertan izan genituen Xabier Zubizarreta Alkatea eta Xabier Bengoa Kultura Batzordeburua ere.

"Al Andalus" Kultur Elkarteak oraingoz ehun bat bazkide ditu, Mondragoekoak gehienak.

Gaur arte, Abaroak utzitako txokoan egin dituzte bilerak. Dena den, dagoeneko hasiak dira gune propioa bilatzen. Itxura denez, euren asmoa egoitza Arrasateko erdigunean kokatzea izango litzateke; baina kontutan hartuz zer nolako prezioetan alokatzen diren hemen lokalak, badirudi ideia auzoren batean gauzatu beharko dela.

Kultur Elkartearen Estatutuak ere prest daude jadanik, eta Eusko Jaurlaritzak eta Andaluziako Juntak noiz onartuko zain daude, Estatutu horiek behin betikoak izan daitezten.

Azken eroldaren arauera, 543 dira Andaluzian jaiotako arrasatearrak. Horietako gehienak Cordoba



probintziatik etorriak (eta probintzia horretako gehienak Montilla herrikoak dira, guztira 163).

Larunbateko afaria hasi aurretik, Montillako Alkatearen telegrama jaso zen, aurrera egiteko animoak emanez. Afalosterako dantzaldi berezia antolatu zuten, Gasteiztik etorritako "Raíces de Sur" taldearekin. Bertan bizi izan zen giroa, benetan aparta!


Guk ere animoak bidali nahi dizkiegu, ideia ederra bait da bakoitzak bere jatorriari uko ez egitea.



LOREA
Oinetakoak
eta poltsak
Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ


UDALA
Auto-eskola
Minusbaliatuentzako
klase bereziak
Otalora 25, Tfnoa: 79 88 56

ITSASKI
arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak
Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94


URONDO elektrizitatea.
Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

URREZKO BITXIAK
ERLOJUTEGIA
Erdiko Kale 23, Tfnoa: 79 20 47
ARRASATE
NAROKI



ETB 2ren "Sin permiso" saioan, zenbait bikote ezkontutan ematen diren bortxaketak aztertu zituzten Mariano Ferreren zuzendaritzapean. Gonbidatuen artean, Nekane San Miguel abokatu arrasatearra izan genuen. Gaia ez zen nolana hikoia, bai interesgarria ordea.

Gaurko honetan, barkamena eskatu beharra daukagu. Orain aste batzuk, Aretxabaletako Kurtzeberri eskolako seigarren mailako neska-mutikoak izan genituen bixitari Arrasate Pressen. Ederto pasa genuen beraiekin, eta joan aurretik, euren argazkia hurrengo alean aterako genuela esan ere. Ez genuen gure hitza bete, baina tira, hobe berandu sekula ez, baino. Beraz, hemen dituzue atxabaltarrak. Eta ikasi ere ikasi dugu, hurrengoan promesak bete egin behar ditugula. ▶



Agian Arrasateko kotxerik zaharrena izan zitekeena, txatarra hutsa izango da laster. Alberto Ruiz de Azuak orain 17 urte erosi zuen, ordurako dagoeneko 6 beteta zituen Seat 1.500 handikote hau. Garaiak aldatu egin dira, eta Albertok kotxea aldatu. Orain Opel Vectra berriarekin egingo ditu kilometroak; seguraski, 1.500arekin, bere bizitzaren zati handi bat joango zitzaion.



AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilipen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

Eta bestela, **LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU**

Zure betaurreko eta lentilan aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate



◀ Garizumarekin batera, lehenengo *karapaixoak* agertu dira. Joan zen ostiralean Bedoñako Artazubiaga baserriko Domi Galdos ikusi genuen azoka plazan *karapaixo* eder honekin. Bazko egunera arte ostiralero ekarriko ditu saltzera 700 pta.tan.

Zorigaitzak, jota utzi zuen *Luko* jantzi-denda 1989ko Natibitate gauean. Erdiko kaleko etxebehean kokatua zegoen dendak, kalte handiak jasan zituen, goiko etxebizitza batean hasitako sutearen ondorioz. Badirudi, nonbaitetik indarrak atera eta negozioari jarraitzeko gogotan daudela. portaloian aste honetan bertan ireki duten denda lekuko ▶



◀ Oso bisita atsegina izan genuen erredakzioan. Donostiatik Angel Erguin "Artorotz", 73 urteko jubilatua Mondragoetarra etorri zitzaigun Arrasate Press etxean jasotzen duelako eskerrona azaltzera. Bide batez, makina bat kontu zahar kontatu zigun. Angel hamalau urterekin joan zen Mondragoetik. Herri askotan bizi ondoren, aspaldi honetan Donostian du etxea, eta Arrasaten Bihotza.

izen propioak

■ **Maidier Egino**, 14, arrasatearra, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Zuhaitz Egunari buruzko hormirudi lehiaketan B mailako hirugarren saria irabazi du. Maidierrek San Frantzisko Xabier ikastolan zortzigarren maila ikasten dihardu, D erduan.

■ **Antonio Gordillo**, 21, tolosarra, Anoetan jokaturako Espainiako Atletismo Txapelketan bigarren geratu zen altuera jausian. Antoniok Arrasateko Eskola Politeknikoan injinerutza hirugarren maila ikasten dihardu, produkzio adarrean.

■ **Angel M^e Etxabe**, arrasatearra, Balore Analisi Injineruen Elkarteko idazkari teknikoa izendatu dute. Elkartek honek egoitza Madrilan du eta Estatu osora hedatzen du bere iharduera. Angelek Arrasateko Eskola Politeknikoan burutu zituen injinerutza ikasketak eta gaur egun Eskolan bertan dihardu lan egiten.



prest



ZENTRO PSIKO-MEDIKOA



GIDA TXARTEL ETA
ARMA BAIMENETARAKO MIAKETAK

J. Carlos Gerra 1, 3. Tfnoa: 77 08 96 ARRASATE

olioak, **ARTEA**
lientzoak,

akuarelak eta
eskulanak

Ferrerías 25

EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

Etxean eta enpresan erantzun behar

Superemakumeak sortu guran ote gabilta?

Urteekin, emakumea etxetik irten eta lan merkatuan sartzen hasi da. Irakaskuntza ona izateko aukera ere baduenez, gero eta emakume gehiago ikusiko dugu lanean. Hala ere, oraindik ez dira asko erantzunkizuneko postuak betetzen dituzten emakumeak. Guk Arrasaten, horrelako posturen bat betetzen duten hiru emakume ezkonduengana jo dugu, emakume moduan lanean izan dituzten arazoak azal diezazkiguten eta etxea eta lana nola batzen duten jakiteko asmoz.



Blanca Roncal, Eskualde Ospitaleko zuzendaria

Traba handirik gabe

Blanca Roncal, Ino Galparsoro eta Eurne Erasquin, hirurak lan egitera Arrasatera etorritako emakumeak ditugu. Blanca izatez Iruñearra, Medikuntz karrera amaitu eta Aseguru Sozialean, mediku lanetan hasi zen. Gaur egun Arrasateko Eskualde Ospitaleko zuzendaria da. Aipatu digunez, bere lanean posturen bat lortzerako orduan ez du zailtasun berezirik izan emakume izanagatik,

Ino, bestalde, Komertzial karrera amaitu ondoren etorri zen Arrasatera. Coprecin hasi zen lanean eta gaur egun ere, bertan segitzen du. Idazkaritzan zenbait lanpostu bete ondoren, eta Komertzial sailean aritu eta gero, Copreciko pertsonal buru dugu gaur egun. Inok ere, lanposturen bat eskuratzeko orduan emakume izateagatik ez duela bere burua baztertuta ikusi azaldu digu. Edonola ere, Pertsonal arloa, lantegian

lehen mailako arloa ez dela adierazi digu, eta beste zenbait sekzioetan, emakumeak gizonak baino meritu handiagoak izan beharko lituzkeela uste du, postua betetzeko.

Eurne, berriz, Pedagogia amaitu ondoren etorritakoa dugu. Umezaintzan lanean aritu zen eta gaur egun San Fran-

tzisko Xabier Ikastolako zuzendaria da. Eurneren ustetan, irakaskuntzan ez du bere burua gutxiestuta ikusi, baina garbi ikusten du irakaskuntza emakumeen ardura kontsideratu izan dela, lehen urrasetan behintzat. Irakaskuntza munduan emakume ugari ari bada ere, ikastoletako lehendakariak, esaterako, gizonezkoak dira gehien bat.

Ardura nolabait gurea

Blanca, Ino eta Eurne, ezkondu eta semealabekin ikusiko ditugu. Blancak argi eta garbi azaltzen digu, etxeko erantzunkizuna berea dela. *"Jakina senarrak laguntzen didala, baina erantzunkizuna nirea da. Etxeko martxa nolabait nik programatzen dut, zer behar den eta zer ez pentsatu, etab."* Goizean etxetik irten eta gauera arte ez omen da familia biltzen eta orduan etxeko zereginak bere gain hartzen ditu Blancak. Inoiz, haurrak gaisorik egon direnean edo, lanean aritzeaz damutu edo nolabaiteko ardura izan duela aitortu digu. *"Alabari ebakuntza egin behar izan zioten, eta ni kirofanoan baino ezin izan nintzen egon, neure buruarekiko beste ama bat alabarekin egongo zela pentsatu nuen. Edonola ere, lanean aritzeaz ez naiz damutzen eta lan hau niretzat beharrezkoa dela ikusten dut"*.

Inok ere, lanak bien artean egiten dituztela aipatu digu, baina edonola ere, bere balantza zertxobait beteago ikusten du. Nolabait *"ardura edo erantzunkizuna nirea da"*. Ino, Coprecin aritzeaz gain, Arrasateko Udalako zinegotzia da eta askotan gauza guztiak ezin egin dituela adierazi digu. Eurnek ere, beste biak bezalaxe, konturatu gabe, etxeko erantzunkizuna bere gain hartzen duela esan digu, lanak bien artean egiten badituzte ere. *"Arrasatera etorri nintzenean, oso harritu ninduen, emakume askok etxetik kanpo lan egin arren, poteo ohiturak eta, gordetzen zirela ikusteak. Honek garbi adierazten digu,*

"Lanetik aparte, etxeko martxa neuk programatzen dut; zer behar den eta zer ez"

etxeko lanak emakumeek egin behar izaten dituztela"


Zenbaitetan gutxietsiak

Lana eskuratzeko emakume izateak arazorik ez badie sortu, emakume izateagatik zenbaitetan gutxietsiak edo sentitu direla adierazi digute. Blancak

esaterako, "mahai batean, gauzak ezta-baidatu edo eritzi bat aurkezterako orduan, askotan ikusi dut ez zidatela kaso handirik egiten emakumea nintzelako. Nolabait esateko, gutxiengo garbian ikusi dut neure burua. Zenbait egoeratan bestalde, beti dago erantzuleren bat, edo errudunen bat eta nire ustez beti beltza edo emakumea izango dira" aipatu digu irribarre artean. Inok bestalde, bere burua gutxietsia ez duela ikusi aipatu digu, baina emakumei buruzko topiko eta antzekoak sarri entzuten dituela adierazi. Edurnek, bere lanarekin zerkusia duten gaiak irakaskuntza mundutik kanpoko jendearekin aztertu ditueanean, etengabe zuzendaria dela demostratzen egon behar izan duela adierazi du.



Ino Galparsoro



Edurne Erauskin

Etxekoandreok ere langileak gara

Emakumea eguna dela eta, hiru etxekoandreekin egoteko aukera izan dugu, Arantxa, Asun eta Juanirekin hain zuzen. Hirurek euren buruak langiletzat ikusten dituztiela adierazi digute. Asunek esaterako, "begira, etxean egonez gero, egun osoan gelditu ere egin gabe lan egiteko aukera dago. Lana nahi beste ematen du etxeak, arazoa neurria hartzea da". Juanik bestalde, "erkonberritan, egun osoa etxean ematen genuen, goizean hasi eta gauera arte, haurrak ere txikiak ziren eta. Etxean nork berea egin behar izaten bait zuen, lanak egin eta haurrak kalera atera. Ez du gogoratzen gizonak inoiz koxetxoak hartu eta haurrak kalera atera dituenik". Etxekoandrearen lanak frustrazioak sor ditzakeela adierazi

digute, etxean sartuta egun osoa bakar bakarrik eman bait dezakezu. "Goizean zortzi 1'erdiak bederazirak aldera jeiki, etxea apurren bat txukundu eta erosketak egitera. Ondoren, bazkaria prestatu behar. Bestalde, beti dago planxa egin beharra edota arropa garbitu beharra edota beste zereginen bat" zioen Arantxak. Asunek azaltzen ziguzue, etxekoandrearen lanaren alderdirik txarrena egindako lana igarri ere ez egitea omen da. "Goizez etxea txukundu eta arraisalderako dena ezer egin ez bagenu bezalaxe geratzen da, batek siesta egin duela edota besteak batek daki zer... Jakina, gauzak erabili ondoren, norberak atzetik joan beharra du gauzak jasotzera".

Hala ere, arazoari buelta ematen ikasi omen dute. "Gaur egun,

apurren bat ikasi dugu. Haurrak ere nagusiak dira eta ez dugu lehengo ardurara hori. Goizez lan egingo dugu, baina arraisaldean guretzat ere astia hartzen dugu. Kurtsilotxo- ren bat egin, edo konferentzia batera joan... Ondoren lagunekin kafea hartu eta afaria prestatzera joan behar. Baina zerbait egin gabe utzi baldin badugu ez gara arduratzen, hurrengo egunean ere astia egongo da eta". Beren lanak inork ez eskertzea ere faltan botatzen dute "Lana eginez gero, inork ez dizu ezer esango, baina zerbait egin gabe utziz gero, berehala esango dizute" zioen Juanik. Askotan haserretu egiten omen dira, beraiek esan behar bait dute egitekoen bat dagoela "askotan 'kriada para todo' garelako penusatzen due" dio Arantxak irrifarrez.

**X. GOROSARRI eta
M. L. TROJAOLA**

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxeba. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67

San Jose Policlínica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

BOLINTXO

kirolak

Ibargarai 10, BERGARA

KANPOKO BI EMAKUME AUTODETERMINAZIOAZ ARRASATEN

MARTXOAK 13, asteartea.

- “EKI EUROPAKO HERRIEN EGOERA GAUR EGUN”

Hizlaria: **ANDREA SZEGO** (INGELESEZ)
(Budapesteko Zientzi-Akademiako irakaslea)

MARTXOAK 14, asteazkena.

- “MENDEBALDEKO HERRIEN AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA”

Hizlaria: **EVA KLOTZ** (ALEMANEZ)
(Soziologoa. Hego Tiroleko Parlamentuko diputatua)

OHARRA: ALDIBEREKO ITZULPENA IZANGO DA.

Arratsaldeko 7'30etan, MONTERRONen.



KAKAX kokox eta KIRRIKI



martxoaren 10ean

Amaia antzokian

6etan

200 pta.

Arrasateko Udaleko Kultura Batzordea



60ak kendu egingo nituzke historiatik

Josemari Velez de Mendizabal, hamarkada bat desmitifikatu nahian

Arrasate Press jaio zenetik, astero astero atsedetik hartu gabe, idatzi du Josemari Velez de Mendizabalek artikulua. Bere burua euskararekin konprometitua ikusten duen euskaldun berri hau, idazle nekazina dugu. Aintzinako Zeruko Argiako kolaboratzailea, Deia egunkarian ere, ikusi ahal izan dugu bere izena. Literatura, saiakera edota biografia liburuak izan daitezkeen zazpi liburu kaleratu ditu. Oraingo honetan, "Sixties" izeneko liburu idatzi du. 60. hamarkadan jazotako zenbait gertakizunei buruzko gogoetak irakurri ahal izango ditugu "Sixties" liburuan. Idazlearen asmoa, zenbaiten ustetan hamarkada prodigioso izan zen hura desmitifikatzea eta bere ikuspegi kritikoa ematea.

— Arrasate Press: Zerk bultzatu zaitu "Sixties" idaztera?

— Josemari: Sixties hamarkada bat da, nire hamarkada. Ni hamar urterekin sartu nintzen hamarkada horretan eta ia karrera amaituta nuela bukatu zen. Nire urterik itxaropentsuenak izan ziren, edozeinenak bezalaxe. Nik 60. hamarkadan nuen adinean edozeinek sentsibilitate handiago du etorkizuna ezezaguna zaiolako, eta urte horiek markatu egiten dute.

Liburu honetan nik urtetan idatzi ditudan pasarteak bildu ditut. Nik egunero idazten dut zertxobait eta urteekin

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

HIRE

Liburu eta oparidenda
iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

pasarte horiek gorpuzten joan dira eta liburu bat osa zezaketela pentsatu nuen. Ez dut inolako pretentsiorik izan liburua idaztean, nik pasiboki edo aktiboki bizi izan nituen gertaera batzuren ausnarketa egin dut.

— *Beraz, zuk gogoratzen duzun zerbait kontatu nahi izan duzu?*

— Kontatu eta desmitifikatu. Historia hura bizi izan genuenok urteekin mitifikatu egin dugu hamarkada hura. "Los maravillosos sesenta" esan ohi da. Eta hori gezurra da. Hamarkada horretan makinatxo bat gauza ikaragarri gertatu zen. Gizona ilargira iritsi zen, baina Biafran gosez makinatxo bat jende hil zen, edota Vietnam-eko gerratea izan genuen, beltzek izugarritzko jipoiak jaso zituzten beren askapen borrokan, etab.


Nik beti esan dut ahal banu, urte haiek historiatic kendu egingo nituzkeela, ikaragarri txarrak ikusten bait ditut.

— *Zein ondorio izan zuten urte haiek zure ustetan?*

— Hamarkada hartan, behar bada utopia bati eman zitzaion bidea. Nik uste dut barkatuko didatela gaurko gazteek, baina orduan hazten ari zen utopia hari ez diote jarraipenik, biderik eman.

— *Ez al da izango gaurko gazteek ordukoak, sisteman erabat akomodatuta ikusten dituztelako?*

— Jakina, horregatik desmitifikatu nahi ditut. 60. hamarkadan mundu guztian mugimendu duin itxaropentsu bati



Josemari Velez de Mendizabal

erabili behar ko liratekeenik, nolakotasunak aldatu egiten direlako.

— *Nola ikusten duzu gaurko gazteria eta hurrengo hamarkada?*

— Noraezean. Nik askotan esan dut gizarte honek teknikoak behar dituela, baina ez injineruak, soziologoak baizik. Gizarte batek oxigeno burbuila izan dezan, teoria ezinbestekoa du. Eta gaur egun ez dut uste ematen denik. Gaur egun sekula baino saiakera gutxiago egiten da eta sekula baino filosofia gutxiago aurkezten da antzerki eta pelikuletan. Baina ez filosofia hutsa, bizitzaren filosofia baizik.

Munduko gazteria batuko duen eta denak batera jokatzeraz bultzatuko dituen utopia edo ametsa falta da. Norbaitek esan zidan, 80. hamarkada diruaren mitoaren hamarkada izateagatik bereizten dela besteengandik eta ez dakit hori ez ote den egia izango. Hori horrela bada, arriskutsua da. Gaurko gazteek euren utopia egin behar ko lukete, gaurko utopietan oinarritzen delako bihurtziko errealitatea. Utopiarik ez dagoen bitartean, oso gaizki ikusten dut etorkizuna. Ildo horretatik, Ekialdeko Estatuetan ematen ari diren aldakuntzen ondorioz, estatu horiek kapitalismoaren sareetan erortzen ari direla ikusten dut. Merkatal mugimenduak horra joko du, merkatu berrien bila, hemengo sistemaren bekatuak hara eramanez eta gizarte horiek izan dezaketzen gauza onak bereganatu gabe. Baina nire mezuak ez luke ezkorra izan nahi. Gazteek jarri behar ko lituzkete etorkizunerako koordinada berriak.

"Mendiaga" kazetaria

Joxemari Velez de Mendizabal, "Mendiaga" zen nik ezagutu nuen. EUTGtik etortzen zela uste dut. Inongo apaizgaitegitik, behintzat, ez zen etorri euskal mundura, gutako asko bezala. Eta hori nahiko harrigarria zen artean.

"Zeruko Argia" astekariaren bulegoan ezagutu nuen Joxemari. Euskaltzaletasunak ekarri zuen. Euskarazko komunikabideen beharrak bultzata, noski. Eta idatzizkora etorri zen, hain zuzen ere, bere idazteko zaletasunak eraginik, behar dada.

Euskal idazleen ohiturari jarraituz "Mendiaga" izengoitia hartu zuen. Garai hartan, gainera, polizia ezagupide gehiegi ematerik ere ez zen komeni. Baina ezizena ez zuen erabili, izkututik, eritzi desberdinetako herritarrak eta euskaldunak jipoi-petzeko, zoritxarrez gaur zenbaitek horretarako erabiltzen badu ere.

Musutruk lan egiten zuen Mendiagak berehalaxe egin zuen bat Zeruko Argiaren egitasmoarekin. Astekari hori hobetzea, indartzea, ugaltzea eta zabaltzea zen bere buruari ezarri zion eginkizuna. Beste batzuk irratigintzan ziharduten, edo ikastolagintzan edo sindikalgin-tzan... Euskarazko astekari eta egunkarietan amets egiten genuenon artean ziharduen Joxemari, beste zereginak gutxietsi gabe, jakina.

Ildo horretatik heldu zen "Deia" egunkaria ere. Arrasateko berriemai-le eta euskarazko orrietako kazetari izan zen. Arte ondasunak, historia, kultura eta abarren inguruko errepor-taiak izan zaizkio atsegin Mendiagari.

Zeruko Argia izan zen Mendiaga idazlearen lehen eskola. Han ikasi zuen oinez. Eta lehen pauso haiei esker dabil orain, bere gisa, han eta hemen idatziz, libururak argitaratuz... Aurrera atera den gazteari atak zabalduaren poza dastatzen dut orain, eskubide osoz.

M. Atraga

Gizarte batek oxigeno burbuila izan dezan teoria ezinbestekoa du. Eta gaur egun ez dut uste ematen denik

eman zitzaion hasiera. Baina laster kontsumo-gizartea agertu zen eta bere hartzapar ikaragarriekin orduko bizitasun guztia harrapatu eta hil egin zuen. Orduan erreibindikatzeko den gizarteari inolako itxurarik ezin eman dakiokela, ondorengo urteak antzuak direla uste dut. Antzuak artean, giza-mailan, erlijioan, sexu-harremanetan, modan, antzuak erabatekoak. Edonola ere, gizona gizon denetik aldatu egiten denez, ez dut uste orduko planteamenduak gaur egun

HIPPY-YIPPY-YUPPY

(Kamaleoia)

Bere izena Jerry Rubin. Batzuentzat, bere asmoe-kin konsekuentea den gizona. Beste askoren-tzat, berriz, ziniko hutsa. Infernuko galdararik ikaragarrienera jaitsi omen zen mundo hone-tako Olinporik amestuenetakoan garaile irten aurretik. Eta Wall Street jaso du orain ereinotzeko koroia, duela hogeitau urte Berkeleyko Unibertsitatean mundu osoko suntsidura—hori bai, beste gizarte hogeago bat eraikitze-ko— aldarrikatzen zuen gazteak.

Eta, noski, orduko borrokari sutsuak bere zergati egokiak aurkeztu behar izan dizkio bere buruari, bere baitan jasandako aldaketa nolabait justifikatzeko.

Berrogei urte berriro beteko ez dituen gizon honen giza-itxuraldaketa ez da —ene ustez— orduko beste hainbat eta hainbat gazterengan eman dena baino ausar-tagoa, ulertezinagoa. Desberdintasuna, agian, protago-nistaren beraren planteamenduan aurki daiteke, hau da, Rubin jaunak bere bizi guztian maite izan duen protago-nismoan.

Hippy izan zen. Kaliforniako hondartzak ederki ondo ezagutu zituelarik. «Beach Boys»-en abestiak kantatuko zituen kezka gabeziarik haundienean bizi izanda-ko urte urdin haietan. Eta, jakina, Herbert Marcuse-ren teoriez bat egin zuen, Estatu Batuetako gazteriak Viet-nam-eko gerraren kontra jotzen zuenean.

Jerry Rubin gazte haietakoa zen, baina aintzindaritza zuen atsegin eta, beraz, zerbaitek esaten zion pake-mugi-mendurako jokaera nola edo hala aldatu egin behar zuela. Hori dela eta, Abbie Hoffman bere adiskide minarekin "Youth International Party" (YIP) zeritzana sortu zuen, balore berrietako beste kolektibitate bat gorpuztu ahal izateko. "Yippiak" gerraterako zeuden gertatuta. Hiri-gerratea zen beren bitartekoa eta Jerry Rubin gerrateko kiderik zaratsuenaren zuten.

Auskalo zeintzu izan ziren mugimendu haren torpea-gailuak! Baina ez dut uste porrotgunetik Rubinen bera-ren eskuak oso urrin egongo zirenik, izan ere bere gisako gazte batek etorkizuna ziurtatu behar bai-

tzuen...ordurarte etsai izandako "establishment"-ean igerian hasi aurretik.


Gainerako gazteek —gizona bera bezain zaharra den bizitza legeari jarraiki— beraien buruak birmoldatu behar izan zituztenean, bide arruntak aukeratu zituztela...Jerry Rubin-ek desberdintasuna markatu zuen, berriz ere, lehen aipatutako protagonismoaren zuziaz bat egiteari eutsi nahi ziola argi eta garbi adieraziz.

"Hirurogeigarrenetako filosofia hil egin da. Gora XXI. mendea"...Eta bere planteamendu berrietan aurre-rakoi agertu nahi duen gazte hark— "Young, Urban and Profesional" mugimenduaren aintzindaritza bereganatu du. "Yuppi"-en arraza jaio da. Rubinek badaki -ez baita batere lerdoa- mundua mundu denez geroztik gazteak heldu egiten direna. Eta berak yuppiar mugimenduan bildu nahi dituen "ez gazte ez heldu"ak mendeetan zehar egoera berdinean aurkitutako gizakien ondorengoak di-rena. Ez gehiago ezta gutxiago ere. Gertatzen dena zera da, XX. mende bukaerako abantaila tekniko guztiez baliaturik, teknika aurrerakoiaren sorlekuan "desberdi-na" azaltzeak mundu guztiko arreta irabaz dezakeela. Eta hori Rubin-ek ederki ezagutzen du.

Baina, jaunok, Jerry Rubin-ek ez du ezer eriden. Bere "Eureka!" faltsua da; duela hogeitau urte Estatu Batue-tako Unibertsitate eta Ikastetxeetan pregonatzen zuen mezua bezain hutsa. Rubin-en joeran nabarmentasuna da nagusi. Horixe du helburu eta horrela jarraituko du, bizi den artean, hemendik hogeitau urtetara Rubin-en asmoa beste mugimendu berri bat eragitea izango dela, ziurtasu-naz asma genezakeelarik.

Yippi-tik yuppi-ra. Ondo kalkulaturiko txirotasune-tik ondo lustreatutako "American Express" tarjetara. Banku billeteak publikoki erretzetik "Ezagutu dirua" deritzan liburua idaztera.

Duda izpirik ez, Jerry Rubin aprobetxategi haundi horietakoa da. Bera bezain gazte eta bera bezain berro-geidun izan ziren Julio Azpirate, Yon Sanchez, Amaia Uribe, ... eta ez zuten hainbeste ixkanbilarik sortu ■



ASEGURU ARTEKARIA

Zure esanetara
gauzkazku!

Maalako Errabala 33, Etxabea.

Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASTE

Edonora zoazela ere,



eraman ezazu ongien
datorkizun dirua.

AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA



CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL



Mondrak Sodupen galdu

Pasa zen ostiralean, Mondra taldeko Zuzendariak, entrenatzaileak, jokalaria, eta beste hainbat gonbidatu ere Erdiko kaleko Gatzaga jatetxean elkartu ziren afaltzera. Afari ederra; Sierra Cantabria ardoak, Portabella & Coma txanpaina eta postreak. Umore ona bai, baita giro aparta ere, baina, itxura denez, gero ez zuten hori Sodupe taldearen aurkako norgehiagokan erakutsi. Eraitza, 1-0 bizkaitarren alde.



Arrasate Kirolak-ek 72, Bañarain-ek 68

Mailari eusteko borrokan, etxeko partiduetan behintzat ondo ari dira Arrasate Kirolak saskibalo taldeko mutilak. Igandeguerdian Iruñeko Barañain taldea etorri zen Musakolara. Azken minutuetara nahiko parekatuta heldu ziren talde biak, baina ederto asmatu zuten une horietan Jose Mari Balzategiren jokalariek. Kontuak kontu, Arrasatek 72, Barañainek 68.



Pedruskok asmatu ez

Pedrusco taldea, eta bere denboraldi irregularra. Edozer egiteko gai dira Ramon Luengoren jokalaria. Bazirudien igandean erraz gaintutoko zutela pareko etsaia, Aranbizkarra taldea hain zuzen ere. Arabarrak sailkapeneko azken postuetan zeuden. Lehen minutuetan, oster, kanpotarrek aurea hartu zuten markagailuan. Bizpahiru aukera sortu zituzten San Andresekoek, baina segituan amaitu ziren bai jokoa, eta bai ikuskizuna ere. Neurketaren azken minutuetan, Aranbizkarraren gol berria. 0 eta 2.

**E D E L
TAPIZTEGIA**

Gortina
Alfonbra
Koltza

Bidekruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



“Berdintasunetik oraindik urrun gaude”

Malen Errasti, borroka feministan buru belarri

Gizarte honetako egoera askoren aurka azaltzen den emakumea, feminismoak barne aldaketa ekarri omen dio. Zenbaitetan etsipena ere sentitu izan du, gauzak zein poliki aldatzen diren ikustean. Edonola ere, feminismoak bizirik segitzeko indar eta kemena ematen diola aitortzen du

— **Nolatan erabaki zenuen borroka feministan parte hartzea?**

— **Malen:** Duela hamar bat urte, martxoaren zortziaren inguruan, beste zenbait arlotan borrokan genbiltzan emakumeak elkartzen hasi ginen. Konturatu ginen, mundu hau gizonentzat eta emakumeentzat desberdin eratua zegoela, iharduera desberdinetan aritzen ginela. Lehen urratsa hori izan zen, biltzen eta gure arazoez hitz egiten hasi ginen. Edonola ere, gutariko bakoitzak jasaten zituen zenbait arazo, denok jasan behar izaten genituela konturatu ginen. Gure helburua, gizon eta emakumeen arteko harremanak aldatzea zen.

— **Edonola ere, zenbaiten ustez, feministen helburua tortilari buelta ematea baino ez da...**

— Gizonen aldetik emakumeok jasaten dugun zapalkuntza desagertzea da gure helburua. Baina gutariko askoren ustez, aldaketa hau ezin eman daiteke sistema politiko honetan, hau da kapitalismoan. Gure ustez, gizartearen egitura osoa aldatu beharko litzateke zapalkuntza hau desagertzeko. Nire ustez, ezin bait daiteke emakumearen askatasuna lortu gizasemeak gizasemea zapalzen duen gizarte batean.

— **Zein eritzi duzue Emakundez?**

— Azken aldi honetan garbi ikusten da emakumearen arazoari nolabait aurre

egin behar zaiola. Gure ustez, erakunde horiek helburu publikitarioa baino ez dute Erakunde horiek nahitaez, emakumea berdintasunerantz abiatzen ari delako mezua ematen digute. Gure eskubideak aitortuta daudela adierazten digute eta zenbait hesi txiki gainditzea baino ez zaigula falta.

Gure ustez, mezu hori gezurra da. Hesi txiki bat baino handiagoa da berdintasunetik aldentzen gaituena.

— **Zeintzuk lirateke oztopo horiek?**

— Erreibindikazio senti- tuena, gure gorputzarekiko eskubidea eta gure ugalkuntza gaitasunaren kontrola da. Hori lortzeaz urrun gaude arrazoi askogarengatik. Ez dago sexu-heziketa sanorik, sexua oraindik ere gai tabua



Malen Errasti

beste egin beharrik. Gaur egun emakumeak erraz joan ohi dira unibertsitatera baina lan arloan oraindik ez dituzte aukera berdinak. Emakume asko dago, lan oso kaskarrak egiten, etxeko lanak, etab. murgildutako ekonomian lan egiten dutenak.

Eraso eta bortxaketak ere hor ditugu. Iaz laurogeitik gora emakume hil zituzten beren senarrek. Eta gero makinatxo bat bortxaketa eta abusu. Gaur egun denak salatzen direla uste da, baina ez da horrela. Emakume asko

nak beste batera.

— **Zein da martxoaren zortziari ematen diozuen zentzua?**

— Gaur egun emakumeen egunaz hitz egiten dugu, langileak ez direlako bakarrik etxetik kanpo aritzen direnak, etxekoandreak ere langileak dira eta. Egundorren zentzua aldatzen joan da eta gaur egun gure berdintasuna aldarrikatzeko edo gure desberdintasuna salatzeko eguna dela esango dugu. Zentzu zabalagoa du.

— **Feministek, emakumeentzat bakarrik antolatzen dituzue ekintzak, zein da ekintza horien zentzua?**

— Gure ustez, zapaldu bakoitzak bere askatasunaren bandera hartu beharra du. Eta horretarako guk emakumeok zapalduta gaudelako kontzientzia hartu behar dugu, gero gizarte hau aldatzeko. Era horretan gu antolatzen garenez, emakumeentzat bakarrik antolatzen ditugu zenbait ekintza, gure borrokaren epe honetan horrela izan behar duela uste dugulako.

Gizonen ekimena kontutan izan gabe, guk geure buruari adierazi behar diogu gai garelako gauza desberdinak egin edo antolatzeko.

“Ez da egia oztopo txiki batzuk gainditzea besterik ez zaigula falta”

izaten segitzen du eta emakumeentzat sexua frustrazio askoren iturri segitzen du izaten.

Gure ugalkuntza gaitasuna bestalde, ezin dugu kontrolatu ez dagoelako aborto aske eta doanik egiteko eskubiderik. Hori Iruñean duela gutxi burutu diren epaiketetan garbi ikusi da.

Lana, bestalde, sexuaren arabera zatitzen da. Gure ustez, emakume edo gizon izateagatik ez dugu lan bat edo

bere burua irtenbiderik gabe ikusten du. Ez dutelako prestakuntza profesionalik, ez eta famili ekonomia horretatik kanpo diru-iturririk, eta independentzia ekonomikoa gabe oso zaila da, zure lagun edo senar izan daitekeena salatzea. Heziketan ematen den sexismoa ere hor dago. Urteak dira koedukazioa martxan jarri zela, baina koedukazio hori ez da ematen, emakumeok era batera hezten gaituztelako eta gizo-

podiuma

**Gerardo Mondragon,
saskibaloia gozatuz**

Gerardok hogei urte ditu, eta jadanik zazpi bat igaro dira saskibaloari ekin zionetik. "Gustatu egiten zait, eta hemen dihardur".

Hor dihardu, Arrasate Kirolak taldeko lehen ekipoan. "Oraindik ere Juntorra naiz, baina lehen taldearekin jokatzeko dut. Aukera polita da, batez ere goiko mailak ezagutzen joateko".

Dena den, denboraldi gogorra tokatu zaie Gerardo eta bere taldekideei. Pasa zen urtean, mondragoetarrei errebotez heldu zitzaizkien bigarren maila nazionalera igoteko txanda. "Gu ez ginen lehenak gelditu, baina aurretik genituen taldeetako egin zitoten igoteari. Guk ez, guk aukera aprobetxatzea erabaki genuen. Jakin ere bagenekien aurreten gaizki ibiliko ginela, partidu ugari galduko genituela; hala eta guztiz ere, jauzia egin genuen".

Badu ezaugarri bat Arrasateko saskibaloia taldeak, jokalarien gaztetasuna. "Beste talde batzuetan, lehenengo mailatik bueltan datozen jokalaria aurkitzen dituzu, edo behintzat beterano asko beiti ere. Arrasateko ekipoan, berriz, jokalarien batazbesteko adina hogeitabat urte inguruan ibiliko da. Hori bai, ez gara umegorri taldea; Garai eta Lander Caja de Alavan egon dira, eta Galilea ere antzeko ekipoaren batean. Gura edo ez gura, horiek badute esperientzia, eta lasai-



tasuna ematen digute".

Une hauetan, ziur behar beharrezkoa izango dutela lasaitasuna, mailari eusteko borrokan burubelari sartuta bait daude. "Hala da, bai. Baina ez pentsa izugarritzako presioa sentitzen dugunik. Gu errebotez heldu ginen maila honetara, ederto etorriko litzateke bertan gelditzea; baina jauzia eman genuenean, bagenekien batez ere ikastera gerozela, ikastera eta gozatzea. Beraz, borrokan gabiltza, gogor entrenatzen ere, baina ez hil ala biziko zerbaite egiten ariko bagina letxe".

Zer esanik ez, jokalariek guztientzat oso garrantzitsua da zaletuen berotasuna. "Eta halako egoeran are gehiago. Alde horretatik ez daukagu inolako kezurik. Arrasaten jende ugari biltzen da saskibaloia partiduetara, toki gehienetan baino askoz gehiago. Hori bai, baharbada zera eskatuko nieke, animo gehiago eman dezatela, benetako berotasuna, guztion artean maila hontu eusteko".

**Eskubaloian,
denboraldi galanta**

Halaxe da, bai. Inolako zalantza barik aurtengoa Arrasate Kirolak eskubaloia taldearen denboraldia dugu.


Zuzen doaz 'Pitxi' Herreroren mutilak igoerako promozioaren bila. Bide horretan, etsai gogorra izan zuten bixitari larunbatean Musakolan: Eibarko Arrate taldea.

Lehen zatian indarrak parekatuta; baina bigarrenean, a ze Sanba dantzatu zuten gure mutilek!

Zortzi goleko abantaila ere eskuratu zuten, 21-13; azken minutuetan, oster, eibartarek alde hori zertxobait murriztea lortu zuten. Kontuak kontu, markagailuan Arrasate Kirolakek 24, Arratek 20.

Gure taldea bakarrik gelditu da sailkapeneko lehenengo postuan, eta horri eusteko, indarrak soberan dituztela dirudi.

Argazkian kamaraz ikusten duzuen neska ere eskubaloia jokalaria dugu: Jasone Diaz de Gereñu, Hemani taldeko atezain internazionala. Jasone oraintsu hasi berria da Arrasate Kirolakeko mutilekin entrenatzen. Beraz, bere entrenamendu-kideak filmatu zituen.



- ITZULPENAK
- HIZKUNTZ MAILAKETA-FROGAK
- DOKUMENTAZIO-ZERBITZUA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA

BALLENEROS KALEA, 12-1. A - 20011 DONOSTIA

TELF. 943 - 46 69 06 / FAX 943 - 46 68 94

Klip, klip; irudirik gabeko musika posible ote?

Ez nuen hamar urte baino gehiago izango, eta hala ere bizi-bizirik dirau oroimenak. Aita Donostiara zihoan batean berarekin eraman ninduen. Oroitzen naiz kafetegi batean sartu ginela, geroztik egin dudan berkokapenean Hotel Codinarena izan zela uste dut. Ordurako mukizu musikazalea ni nonbait, eta segiduan jo nuen musika-makinara. Oso garestia zen, baina aitak -egun ona zuelako edo- txanpona eman egin zidan. Eta hor non, diskoa aukeratu nuenean, musika ezezik alboko pantaila batean kantarien irudiak agertzen diren. Aho zabalik geratu nintzen. Hura inpresioa!

Urteak joan dira eta irudien kulturaren murgildu gara. Egunkarietako gero eta argazki gehiago eta handiagoak erabiltzen dituzte. Aldizkarietako berriz, zer esanik ez. Publizitate



eragingarriena begietatik sartzen zaiguna da. Politikarietako irudi-aholkularien esanetara makurtzen dira. Eta musikari ere iritsi zaito txanda.

Disko berri bat sortu bezain agudo bere salmentak bultzatuko dituen klipa prestatzen da. Sarritan diskoa bera egiteko baino diru gehiago erabiltzen da klipa egiterakoan. Telebista kateak sortu dira egun osoan

klipak bakarrik ematen dituztenak. Bitarteko teknikoaren hobekuntzak aprobetxatuz sekulako efektuak lortzen dituzte klipen egileek. Zineman bertan nabaria da klipen munduko zenbait aurkikuntzen erabilpena.

Eta guzti hori ondo dago. Izan ere, klipetan isladatzen dira -eta akaso beste inon baino hobeto- garaiko gizartearen handitasuna eta mixeria. Baina era berean, beldur naiz ez ote garen musika besterik gabe eta begiak itxita entzuteko ahalmena galtzen ari, musika bere horretan dastatzeko gaitasuna ez al zaigun guztiz motelduko.

Segurutzik, gaurko hamar urteko mutiko batek musika-makina haretan txanpona sartu eta irudiak ikusterakoan lilura sentitu ordez, zera esango zukeen: Jo aita, zelako bideo kaskarra!

Mikel Irizar

Gamei, S.A.

**MARRUSKADURAZKO PRENTSAK
PRENTSA ESZENTRIKOAK
PRENTSA HIDRAULIKOAK
TORLOJODUN ERAUNSPENEZKO
PRENTSA
TOTXOTARAKO ZIZALAK
DEFORMAZIO MAKINA BEREZIAK**

Nafarroa Etorbidea, 31 Tfnoa 79 55 00 Telefax 79 03 97
ARRASATE



ZENBAKI

**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Basabe Industrialdea
ARETXABALETAK

Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

ARRASATE PRESS

77 05 65



ZUHAITZ EGUNA 1990

Martxoaren 10ean ospatuko da Garagartza auzoan

Irteera: Atxabalpe futbol-zelaiaren ondoan.

Ordua: 9:30etan Arbolapetan bilduko dira parte hartzaileak.

Arrasateko ikastetxeetako 6. mailetako haurrek, gurasoek eta irakasleek parte hartuko dute.

Dultzainero eta txistulariek festa lagunduko dutelarik.

Garagartzan ogitartekoak eta edari freskagarriak banatuko dira.

Arrasateko Udala

BIDEO-EMANALDIA

Polizi akademia eroa 2

Tokia: Monterron Kultur Etxea


Eguna: martxoaren 10

Ordua: arratsaldeko 4etan eta 6etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen


Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



Euskara erromatar garaian edo...

Euskararen aintzinako mugak orain izendatu behar bagenitu bereizketa asko egin beharko genuke garai ezberdinen arauera, eta sarritan, dokumentazio eskasiagatik, ezin izango genuke hipotetikoaren mugarik pasatu. Mitxelenaren ustez, gaurko euskara lehenago askoz hedatuago egon behar zuen familia batetik geratzen den uhartea da, askoz hedatuago Iparralderantz eta Ekialderantz batez ere.

Zonalde euskaldunak I-XX



Bestealde, erromatarren domeinupean, euskarak, behar bada, izan zituen galtzorizko uneak, baina III. eta IV. mendeetan organizazioa zaharkitu eta zatitzean nekazaritza indartu egiten da, eta nekazaritza indartzearen ondorioz hizkuntzak indar berria hartu zuen.

Euskalerriko alderdirik erromatar-tuenetan hizkuntzak zartada gogorak hartu zituen; baina gero frankoen eta godoen kontra izan zituzten burruketan bane batasuna izan zuten, indartu egin zen berriro.

Menendez Pidalek, Urbelek, etabarrak uste dute, Gaztelaren sorreran eta

honen erromantze gintzen zerikusia izan zutela euskaldunek. Izan ere, bi hizkuntzen arteko kidetasun sakon batzuk pentsarazten dute gaztelar erromantzea aurretik euskaraz egiten zuen herri batek sortua dela. Errioxako lurrak eta Burgosko zati bat aipatzen dira. Izan ere, bi herri hauek duten euskal substratuak aurretik alderdi hauetan euskal jendea zegoela pentsarazten dute. San Millan de la Cogolla-ko (Errioxan) "Glosas Emilianenses" deiturikoetan euskal hitzak egotea ere adierazgarria da.

Euskera, literaturan XVI. menderarte sartu ez bada ere, hantxe dago beste hizkuntza batez idatzitako inskripzioetan, kartularioetan, donazioetan, kontratuetan eta hiztegietan. Gehienetan leku izenak, giza izenak, hitzak eta inoiz esaldi eta testu laburrak ere bai.

Esan beharra dago, ezagutzen diren euskal esaldirik aintzinakoenak aipatutako "Glosas Emilianenses" deiturikoetan daudela. Hauek dira: "jzioqui dugu" eta "guc ajutuez dugu". X. mendekoak berauek.

Altalataikoan



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- * *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- * *Fresatzeko makinak*
- * *Zenbakizko kontrola*
- * *Mekanizazio-zentroak*
- * *Tornuak*
- * *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE

Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61 Posta kutxa 95. Telefax: 798097

Nerabezaroa (IV)

Adoleszenteen ohiturak ondo ulertzeko derrigorrez-Akoa dugu inguruko ohiturak ezagutzeko eta hauen inguru hurbilena gurasoena da.

Horregatik ikerketa egiterakoan denei galdetu zitzaizen, etxean tabakoa eta alkohola kontsumitzeko ohiturarik ba ote zegoen.

Erantzunek zerbait argi eta garbi utzi digute, gurasoen ohiturak ederki ezagutzen dituztela, alegia.

Ikus ditzagun lortutako ondorioak:

	AITA	%	AMA	%
Tabako-erretzaileak	505	53,38	175	18,47
Erretzen ez dutenak	229	24,20	721	76,22
Noiz behingo erretzaileak	65	6,87	21	2,22
Ez daki	1	0,1	0	-
Erretzaileohia	146	15,43	29	3,07

Gizonek emakumeek baino gehiago erretzen dutela garbi geratzen da honekin. Datu hauek gizon helduekin egindako ikerketetakoekin parekatuz berdintsuak dira.

Emakumeen kasuan zerbait zehaztu beharra dago: etxetik kanpo lanean dabiltzanek, etxean bakarrik lan egiten dutenek baino gehiago erretzen dutela:

	Erretzaileak	Erretzen ez dutenak	Erretzaileohiak
Etxeko andreak	86	464	12
Etxetik kanpo lan	92	285	17

Gizonengan ogibideak eragin handia ez duela dirudi eta hauek berdintsu erretzen dute, lanak eta gizartean duten posizioak zerikusirik ez duelarik.

124 senditan (%13,10) aitak nahiz amak erretzen du; 365etan (%38,58) aita bakarrik da erretzailea, eta 24 senditan ama da erretzen duena. Denetara %54,22ak erretzeko ohitura du, 195 dira erretzen ez dutenak (%20,6) eta 18 senditan aitak nahiz amak erretzeko ohiturari utzi egin dio, hau da, %1,9ak.

Hurrengo astean alkohola edateko ohitura ikusiko dugu.

Eukeni Olabarrieta eta Arantza Lizaso

URREZKO 8 ARAUAK

ETXEBIZITZA EROSI EDO SALDU BEHAR DUTENENTZAT



1. Eskain-eskari merkatu handia izan
Oso garrantzitsua da erosleentzat salgai dauden etxebizitza gehienak aztertu ahal izatea eta jabeentzat erosleak informazioa jaso dezaten.




2. Kolaborazio espezializatu bilatu
Aholkulari espezializatuaren lana, nahitaezkoa da etxebizitzaren salerosketak daukan aspektu guztiak ezagutzeko.



3. Segurtasun-neurriak bilatu
Disgustu bat baino gehiago ekiditeko (ebitateko), zama, hipotekak, bahiturak, murrizketak, etab. ezagutzeko, ordainketak kontu abalaturan egitea, eta nori zabaltzen eta erakusten dion etxea jakitea.



4. Ondorio fiskalak aztertu
Fiskoarekin topo egin gura ez baduzu, aukera desberdinen ondorioa aztertu, etxebizitza erosi edo saldu baino lehen.



5. Behar den denbora inbertitu
Eta ez gehiago. Erosleek, informatizazioaren bidez, "bat-batean" ezagutzen dute. Hauek merkatua eta planoak, giltzak, etab. daukate. Jabeek ez dute gestiorik egin behar Erakunde, Kutxa, Notari, Erregistroetan...



6. Aldez aurreko balorazioa egin
Saltzeko zein erosteko, merkatuko benetako prezio egokia eta ondo jakitea komeni zaizu.



7. Finantz alternatibak aztertu
Eta salerosketen-kontratu bati erantzuteko kreditu eta subentzio-alternatiba desberdinak zehatz-mehatz ezagutzeko eta mesedegarriena aukeratzeko.



8. Kontu handia jarri kontratuan eta eskrituran.
Kontratu on bat saltzaile eta eroslearentzat, bieritzako, garantia da. Garrantzitsua da, halaber, legez tramite desberdinak eta bere kostuak ezagutzeko: eskriturak, BEZ, notari-gastuak, erregistro-gastuak, gainbalioa, etab.


Guzti hau geure bulegoan konponduta izango duzu, talde profesional batek abalaturik.



Domekero mendira. Zorionak!

Euskal Herriko mendiek eta biztanlegoak beti izan dute elkar ikusi gogorra. Orain artean, gure mendiak bi ikuspuspuntutik ikusi ditugu: bata bere zentzu magikoan, gure historiarekin eta mitologiarekin lotuta (bes tela galde egin Jose Miel Barandiarani ea nondik atera dituen bere ikasketen edo ikerketen aztarna gehienak), eta besteak berriz, guztiz helburu ekonomikoak eraginda, eta zerikusirik ez duena herriaren lotura magikoaz. Hau esanda gero, gogora erazi nahi genieke agintareki natura errespetatu dezatela eta geratzen diren paraje zoragarri horiek gorde ditzatela.

Bizi ditugun denbora hauek beste entretenimentu era batzuk ekarri dizkigutenez, nolabait men-



digoizalekusunak atzerakada izan du, gazteen artean batez ere. Guk ez genuke inor behartu nahi hona edo hara joaten, baina pentsatzen dugu probatu ezik, inoiz ezin zaigula ezer gustatuko.

Badago ohitura bat Arrasaten, eta beste toki askotan izango da, ia domekero Leintz bailarako edozein

menditara joaten direnak, bueno ez bakarrik Leintz bailarakoak. Horrelako ohi-turak abantaila nabarmenak dakartza. Esate baterako: gorputza jorratu edo urratu, bāzterrak ezagutu, natura hobeto ulertu, lagun arteko harremanak sendotu...

Badakigu, eta guri gertatu zaigu, zapatu gabeko gorabeherak, eta ez aldapak daudelako, domeka goizean ohean uzten gaituztela. Monotoniak

aspertu egiten gaitu. Proba ezazue noizbait zapatu gauean aguro erretiratzen eta hurrengo goizean mendira joan. Gustatzen bazaizue, segi aurrera.

Azkenik, Besaidek domeka honetarako, irteera antolatu du Etxauri aldera. Egun aproposa izan liteke proba egiteko. Animo!

Hankamotz

AE ELKORO

AE

Magdalena 29-31,

Tfnoak: 79 18 86 - 79 45 99

ARRASATE

**TB
HIFI
VIDEO-CLUB
ZERBITZU TEKNIKO**

**BLAUPUNKT
PANASONIC
PHILIPS
HITACHI
MITSUBISHI
SONY**

AE

Garibai 10,

**ETXEKO TRESNAK
ARGITEGIA**



**SATELITE BIDEZKO TB
TELEBANAKETA**

Construcciones ARRASATE S. L.

(Lehen Construcciones CODIMA)

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE



ZURE KOTXEA DOHAINIK AZTERTZEA



ARRASATEKO UDALAK, CADEM-EUSKO JAURLARITZAREKIN bat eginda, zure kotxearentzako zerbitzu guztiz dohainekoa eskeintzen du.

Diagnosi lekua:

Lehen E.J.E. zena, Udal Biltzea orain, baina Errekalde kaletik sartuta (kontuz! iaz asko eta asko Gipuzkoa Etorbidetik abiatu ziren eta).

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera- goizez 10etatik ordubata arte; arratsaldez 3,30etatik 6,30etara
Larunbatetan- goizez 10etatik ordubietara

IBILGAILUA BERRAZTERTU GURA DUENAK TXARTELA IZAN BEHARKO DU, DAGOKION LEKU ETA ORDUAREKIN; txartel hau diagnosi lekuan bertan luzatuko da, martxoaren 5etik aurrera.

Programa honek erregaiaren kontsumoari, inguruaren kutsadurari eta zizkulazioko segurtasunari dagozkion anomaliak detektatzea du helburutzat. Puntu hauek aztertuko dira:

- Nibelen kontrola eta estankotasuna
- Bateria eta karga-zirkuitoa
- Ihes-gasak konprobatzea
- Pneumatikoak
- Direkzioa
- Pizteko sistema
- Zilindroen konpresioa
- Banatzailearen kontrola
- Erregaiaren kontsumoa
- Esekidura
- Gasolina-ponpa eta karburadorearen kontrola

Diagnosia egin ondoren CADEMekin kontzertatutako edozein tailerretara joan ahal izango da; erabiltzaileak, laneskuari dagokionez, %30eko beharpena izango du, diagnostikatutako konponketetan. Horretarako CADEMeko teknikariak luzatutako inprimakia erakutsi beharko da.

Aste gazte

Etiket kanpo lanean diharduten emakumeek, etxeko lanetan (bataz beste) 30 ordu ematen dituzte, nahiz eta kanpoko lanean beste 33 ordu eman. Interesgarria litzateke emakumeen ordutegiak eta gizonenak parekatzea.

Emakumeen egoera Euskadin

Bekak

— Komunitateko herri guztietarako 57 "Robert Shuman" beka. 3. zikloko ikasleentzat. Aukeratutako ikasleek ikerketako proiektuan parte hartuko dute. 2-3 hilabeteko iraupena. Diru kopurua: 37.000 FB hilean. Ospatzeko hileak: apirilatik-uztaile-ra; Irailetik-Abendura. Eskabideak: aktibitateak hasi baino 4 hilabete lehenago.

Ibilaldia

— VI. Edizioa: "24 orduko ibilaldia". (Durango). Martxoaren



10ean hasi eta 11an burutuko da; irteera goizeko 6etan Tabira Mendizale taldearen egoitzan. Izen ematerakoan 500 pta. Izen ematea: martxoak 8a baino lehen.

Lehiaketak

— V Ipuin lehiaketa. (Zumarragako Udala). Gai libre. Lanek inoiz argitaratu gabeak eta erderaz edo euskeraz izan beharko dute. Hirukoiztuan aurkeztuz, idazmakinez, bi espaziotan eta folio neurrian. Epea: martxoaren 16an.

— II. Pintura lehiaketa (Osakidetza). Teknika eta gai libre. Formatoa: gutxienez 73x60 (20F) eta gehienez 116x89 (50F). Lan bakoitzak titulua eramango du eta partehartzailerako bakoitzak 3 lan aurkez ditzake (listoi batekin babesturik). Sari asko egongo dira.

OHARRA: Lanaren gaiak kokatu behar diren lekuekin zerikusia eduki beharko du.

— XXIII. Kultur astea: (Huesca).

— Poesia Saria: gutxienez 250

bestso izan behar du. Gaia, metrika eta konposizioa, libre. Saria: 50.000 pta.

— Kartelen Saria. Neurriak 60x40 zm. Erabiltzeko teknika: argazkigintza, marrazkia, pintura. Saria: 30.000 pta. Epea: 90-03-15.

— "Ciudad de Barbastro" Elaberrri motza saria. Gaia libre. 100-150 orri luzera. Saria: 750.000 pta. Epea: Martxoak 15.

— Testu irazkinen "Rafael Lapeña" Saria. 3.BUP eta COU ikasleentzat. Gaia: Autore espainiarra edo hispano-amerikanoa; edozein garaitakoa. Luzera: 5-15 orri. Saria: 50.000 pta. Epea: 1990-03-31.

— "Jose Luis Borges" Ipuin lehiaketa. Gai libre. 2-6 orri (kuartilak). Lema sistema. Saria: 500 dolar. Epea: 1990-04-02.

— Teatro mimoaren saria. Cabaret, ilusionismo, musikal, clown, trukaketa, etab. Euskaraz nahiz gasteleaniaz. Hizkera, balio estilistiko oso kontutan hartuko da. Saria: 500.000 pta. Lanak aurkezteko epea: Martxoaren 23a baino lehen.

Informazio gehiago: Gazte Zerbitzua Tfnoa: 79 09 00



JOTA IKASTAROA, FANDANGO ETA ARIN-ARINA



12-14 urte bitartekoentzat

Hasiera martxoaren 22an

Iraupena: Hilabete

Ordutegia: ostegun eta ostiraletan 7etatik 8'30etara.

Izen ematea: Udaleko Gazte Zerbitzuan. Tfnoa: 79 09 00

Antolatzailea: Lore Gazteak eta Gazte Zerbitzua

Gazte Zerbitzuan anagrama



ETXEBIZITZAK

- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuek deitu 79 62 89 tfnora.
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- San Andresen garajea alokatu edo erosiko nuke. Jabier 79 50 53
- Bi neskak tokia behar dugu Bilbon, pisu konpartituan. Deitu 79 26 62 tfnora.
- Bikoteak errentan hartzeko tellatupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramalo kalea 4, etxabeen etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 79 97 18.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 79 39 00 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 24 31 95 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikiren bat edo tellatupea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 79 81 76
- Bi oheko logela eskeintzen zaie ikasleei. Tfnoa: 79 07 73

LANA

- Disko-pub-kafetegietan esperientzia-dun kamarera lan egiteko prest. Itxura onekoa. Tfnoa: 79 70 41 (Teles)
- Umeak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest (gauetan eta asteburuetan) Tfnoa: 79 28 30
- Neska euskalduna O.H.O.ko haurrei klase partikularrik emateko prest Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera 79 64 82 telefonora.
- O.H.O.ko klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 26 19 (Itziar)
- Emakume euskaldunak umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi emakume euskaldun behar dira asteburuetan erretegi batean lana egiteko. Deitu tfno honetara 76 22 68
- Emakume gazte eta arduraduna lanerako prest. Tfnoa: 79 77 36
- REM lehen kurtsorako irakaslea hartuko genuke, egunean bi orduz, klase partikularrik emateko. Interesatuak dei: 79 59 08 (Marilu)
- Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 73 83
- Edozein lan egingo nuke. Tabernan, jattetxean, haurrak zaindu... Dei 79 15 35 telefonora.
- Pertsona euskalduna behar da ikastetxetan eta etxez-etxe bideoak saltzeko. Baldintza interesgarriak. Interesatuak deitu 79 54 46 telefonora.
- Sukaldeko lanak egingo nituzke. Dei 79 43 93 telefonora
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak eta bi ume zaintzeko. Tfnoa: 79 06 66. Goizez.

SALEROSKETAK

- Primeran dabilen R-12 txuria salgai. 9 urtekoa. BU-F. 125.000 km. 200.000 pta. Kike. Tfnoa: (945) 24 96 01. Goizez.
- Seat 127 kotxea salgai. Matrikula SS-7330-F. Tfnoa: 79 75 67
- Zubi-logela salgai. 90 zentimetroko bi ohe; luzera 3,45m. Goierra 2,20m. Idaztegia ere badauka. Tfnoa: 79 80 08
- Somier ohea salgai. 120 zmkko zabalera. Egoera onean. Interesatuek 796150 tfnora deitu 5:30etatik aurrera.
- Montego Turbo SS-2264-Y salgai. Telefonoak: 52 53 38 27 62 66.
- "Yamaha SR-250 especlap" SS-Y salgai dago. Primeran dabil eta 17.000 km ditu. Dei telefono honetara 79 61 89.
- Brontzeko lanpara ederra salgai. Tfnoa: 792358
- Gozotegrako labe handia salgai. Bere fermentaziorako kamara duelarik. Saba markakoa. Tfnoa: 79 23 58
- BMX Torrot bizikleta salgai. 12.000 pta. Baita JOMA markako takozko zapa-tilak ere. Berri-berriak. 36. zenbakia. 1.500 pta. Dei 79 97 69 telefonora 8etatik aurrera. Inma.

DENETARIK

- Botatzeko duzun ofizina mahai hori gustora jasoko nuke zure etxera joanda. Dei 79 21 35 tfnora.
- Fosillak eta naturaren bitxikeriak atsegin bazaizkizu deitu nazazu koadrika osatu eta mendiak ezagutzeko. Gaizka Mena. Tfno: 79 65 31



AINHOA ZILAUURREN

"Eta zure barreak mundua ez zela inoiz amaituko esaten zigun;

eta zure begiradak amets horiek ziurtatu egiten zituen.

Eta orain, indar boteretsu batek eraman bazaitu ere, badakigu egia zela, zeu geurea bait zera, betiko."

3. Z gelako lagunak Arrasaten, 1990eko martxoaren 6an



AINHOA ZILAUURREN



"Argia eman zenuen eta orain joandako eguzkia zara zu; adiskidetasuna eman zenuen eta orain galdutako usoa zara zu, baina guzti honez gain, uso argi, beti gogoan izango zaitugu."

San Viator ikastolako ikaskide, irakasle eta gurasoak. Arrasaten, 1990eko martxoaren 6an

Famauen ahotik

NIKOLAS GARDOKI: Hogetamar urtetik gora plazaik plaza auspuei eraitten. (I)



Solfueu hasi Aramaixoko elixan...

Eskolan gebitzela, astien birriten dotriñara jueten gitzuan elixara eta han elixan gure auenak apuntau, gero geraketan zuan beste ordu erdi ero ordubate solfeo pixkat ikesteko eta halan ba geraketan nitzuan eta bastante idea hartu naixuan. Baiñe eskolatik urte nauenien, urte bixen ero itxi ein nutzan eta han gaiñera ba, ezautu bai bañe serixo etzuan hartzen.: egun baten jueten hintzen, hurrenguen iguel ez ta...

Baiñe gero, serixo hasi nitzenien ondo etorri jatan.

...gero, Angiozarko itsuek animau eta Juan Arzamendiana...

Jaixetan Angiozarko itsue jueten zuan gurera eta nik jote naixuan txistu bat, hazurrezko txistu bat; hola zazpi zulo ero jaukan eta oidue bastante ona naukan itxurie eta jote nittuan pieza batzuk pe eta horrek Angiozarko itsuek: "hik soñue ikesi biauke". Eta etxien

LEHENAU LETRAK-ETA GEHIXAU APREZIAU

Lehenau, nik altaboz ta ezebe barik kantetan naixuan eta nik uste juat jentiek atentziño gehixau jarten auela, kasu gehixau eitten auela, letrie be gehixau apreziâu ta...Oin danok zaraien puruz gabitzak.

esaten jutzien aittek-eta: "bai zera, berritarrak ezin jeikek ezer ikesi". "Baietz gizona, iguel batzuetan onenak urtetan juék-eta". Apur bat solfeue bihe nauela eta juen nitzuan horra Arzamendiana eta hartu ninduan bakar-bakarrik eta neuetako euki dotenik profesore onena. Hori te Angiozarko itsue, bixek, serixo, berba gutxi eta erakutsi asko.

Eguerdxien denporie libre eukitten nauenien jueten nitzuan eta urtebetien urte bixena sartu justan.

...eta soñue ikesten itsuana Eibarrera

Bizikletan Mundraure etorri, Etxezurin itxi eta gero trenien jueten nitzuan Eibarrera. Juen nitzuan ta lehenengo gauzie soñue erosi biheko zala. Zenbat letz eitten auien eta 7.000 pta. inguru. Orduen nik enaukan diruik eta "bueno ba", deittu justan, baaukela eta jueteko. Juen nitzuan eta harekin ikesi naixuan ikeragarri. Han urtebete eñ eta beste urtebete barru plazan nebilan Aramaxon. Han batek itxi ein bitzela eta, lehenengo ba, 20 pieza-ero ta "bueno ba, datorren asterako beste bat ikusi bihe juau". Hurrenguen 21 eta "joño, gaur barrixe ikesi jok".

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Gaztandolako Paulo Elgetako kanposantuko ormia jasotzen zihar-duen gizon batzuekin topau zan:

— Atsaldeon gizona! Ze, badiharduzue?

— Bai, badihardugu.

— Alperrik diharduzue ba.

— Alperrik?

— Bai, alper alperrik. Ze eztago billurrik barrukuak urtetzeko eta kanpokuak pe ez gogorik barrura sartzeko.

Orduan be sikute mortala ei zeuan. ez etxetan urik ez argirik, (orduan argindarra urakin eitten zan) tailler guztiak geratuta... Atsalde baten Maltzan eibartar batek preguntau ei zotsan plaentziar bati:

— Hi, Plaentxi, Plazentzia aldian ze moduz zabizte urakin?

— Urakin ondo, ur barik gaizki.

.....

Plazentzia errekazulo baten dagolako hamaikatxo adar-soñu entzun bihar izaten dabe bertakuak.

Badakizue Plazentzia munduko urteerarik onenak dauzkan herrixa dala? Handik noranahi urtenda be Plazentzia baiño paraje hobera ailegatzan dalako.

Txakurrak pe ohittuta dare mendibittarte estu hartara. Kalian dabilzenian buztanai ezker-eskuma eragin biharrian gora-bera eragitten dotse. Soñujoliak pe halaxe jo bihar izaten dabe.

Juan Martin Elexpuru



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabilola. Tfnoa: 79 62 11



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreprodukzioa
Offseta
Ferrerías, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



Hauxe duzue Arrasateko lehen Orfeoia. 1928an sortu zen. Joera politiko askotako jendea zegoen bertan eta bigarren Errepublikan etorri zenean sakabanatu egin zen. Argazkiko hiru abadeen inguruan eratu zen abesbatza: Joxe Markiegi debarra tripleen irakaslea zen; Eskoriatzako Joxe Izurrategi organujolea eta hirugarrena Jon Pako Imaz zen. Argazkia Iturriotz kaleko zentruko terrazan hartu zen.

Zoruan jarrita, ezkerretik eskuinera, Donato Arregi, Luziano Aranbarri, Angel Erguin, Juan Axpe, Gillemo Juldain, Eloi Urzelai, Fakundo San Pedro, Pablo Zumelaga eta Luzio Berezibar. Bigarren iladan ezkerretik hasita, Leibar, "Tigre", on Joxe Markiegi, on Joxe Izurrategi, on Pako Imaz, ezezaguna, Joseba Zeziaga eta Luis Herrera. Hirugarren iladan ezkerretik, Yarza, Wenceslao Lasagabaster, Lukas Portillo, Diego Artxubi, Floren Gonzalez, Isaias Abarrategi, Beltran, Roque, Yarza, Baños eta

Valeriano Martinez. Laugarren iladan, Esteban Etxebarria, Luzio Markaide, Balentin Letona, Eustasio Guridi, Gaztañares, Joxe Mari Ezkurra eta Donato Aranburuzabala. Goikoak ezkerretik hasita, ezezaguna, Zaitegi, Azkoaga, Eustas Markaide, Jose Ramon Zubillaga, Azkarate, ezezaguna, Gaztañares, Lasa, Joxe Mari Armengou, Joxe Otxoa, Joxe Antonio Balerdi, Joxe Azkarate, Goitia, Ruiz, German eta Juan Pedro Azkoaga.

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate

Galdetzen duena	Sorburu	Euskara ez dena	Benetan	Bokal errepikatua
Zuzia	Bainu beroa	Arrain saltokiak	Germanioa	
Oso baten 1/4 zatia				
Lerdea			Bokala	Oinarrizko likidoa
			Agiria	
Traba				
Galderak				Roentgen Mintzo denarengana eramana
Azkenekoa	Erdi erdian		Infusioa	
Lurrezko ontziak	Garbigai		Lakarra	
				Italiako moneta
Kasik		Galioa	Aluminioa	
Animalien mediku		Bokala	Lehen-goia	
Galiziako ibaia		Lehen eta azkenekoa	Kontsonante errepikatua	
Gainka ohi duen haurra		Nitrogenoa	Kontsonante	

Hitz gezidunak

Soluzioak

G	V	I	N	K	A	R	I	A
R	R	Z	V	A	E	O	R	R
I	R	I	L	V	A	I	L	A
L	V	A	I	G	V	A	I	L
K	V	X	U	E	L	V	A	K
E	V	L	D	R	Z	R	I	L
R	K	V	U	N	V	A	K	R
U	E	N	B	V	A	R	V	Z
E	D	U	R	R	V	A	E	E
V	A	U	R	D	E	N	V	A
V	A	S	T	A	R	G	I	A
Z	E	I	E	E	E	E	E	Z

ENBIDOtik hartua, ELKAR-en baimenarekin



ERAÑA AHOLKULARITZA

Orotarako aseguruak

Kontzeziño kalea 4, etxabea Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Ainhoari

Batzuetan min ematen du bizitzak. Zarpada
ustelak jaurtitzen ditu, plaust.

Erortzen diren tokira.

Batzuetan nazka ematen du bizitzak, eta
bizitzak berak osatzen duen loteria ere.

Nazka.

Gaur, bazkalosteko kafesnean zure heriotzarena kontatu
didate, Maie, joan egin zarela gure artetik betirakotz.

Bide ertzean gelditu den lore laguna.

Ez dezula gehio Monterron zapalduko.

Maie. Monterron.

Ezta herriko mutikoak ikusiko ere, ostatutik ostatura.

Oraindik ere oroitzen ditut kalean gora eta
kalean behera gurutzatzen gineneko egunak.

Eta tristetu egiten naiz.

Tristetu, ez nintzelako inoiz zure albora hurbildu;
ez nizulako une hartan irriparre bat bera ere eskaini.

Sentitzen det, Maie.

Amets egiten dut.

Amets.

Eta bakixu? Hor nonbait somatu ere, gaur gauen
izar dizdiratsua jaioko dela zero ilunean.

Izar horri so, Maie, promes egiten dizut
sekula kontatu ez nizkizun istorioak bidaliko dizkizudala.

Zuretzat. Maitasunez.

LUKO

Udaberri-udarako berrikuntza berriekin dagoeneko zabalik ditu ateak,
Maisu Aranon, PORTALOIAN

■ **Euskal talderik superligan?:** Telebistan entzun nuen albistea. Berlusconi enpresari italiarrak Europako telebista desberdinen beharretara egokituko litzakeen superliga antolatu nahi duela kontinente zaharreko futbol talderik onen eta ahaltsuenekin: Milano, Napoli, Real Madrid, PSV Eindhoven, Liverpool, Barcelona, Marseille, etab. luzea hamasei osatu arte. Ametsezko liga, futbol mailan.

Albisteak zioen, futbol partiduak bi zatitan banatu barik, lautan partitu beharko lirateke ala, telebista-kateek publizitate mailan dituzten preminei moldatuz. Azken batean, Ipar Ameriketako aspalditxotik gertatzen dena futbol amerikar, beisbol, saskibaloia eta gainerako kirol handienekin. Ezin esan emaitzak txarrak direnik, telebistek nahi dutena lortzen dute, publizitate eta (ondorioz) diru gehiago; kirol elkarteek ugalduta egiten dituzte diru iturriak eta ikusleek ikuskizuna jasotzen dute.

Espektakuluaren munduan gauzak nondik nora doazen ikusita, ez nintzateke bat ere harrituko egitasmo hauek gauzatuko balira.

Baina zein izango litzateke euskal ordezkaria superliga horretan? Edo gordinago esanda, izango litzateke euskal ordezkaritza hori? Bigarren mailako ligarekin konformatu behar? Zeren, seguruenik, supermaila horretan irauteko, emaitzak baino ahalmen ekonomikoa izango litzateke kontuan. Behar bada super talde euskalduna sortu behar. Auskalo.

■ **Filme ugartasuna telebistan:** Telebista katea pribatuak ugaltzen ari diren honetan, sekulako lehia ireki da denen artean audientziak eta publizitatearen pastela irabazteko. Horretarako denak balio du: emisioen kalitatea, orduen eskaintza, norik eman kirol gehiago eta...zeinek pantailan jarri filmerik erakargarrienak.

Edozein egunetan egunkaria irekiz gero, bospasei filme eskaintzen zaizkigula ikusi ahal izango dugu, katea frantsesak kontatuz gero, noski. *Antena 3* eta *Canal Plus*en etorrerarekin joera hori izugarri areagotuko da. Honen programazioa ikusterik baino ez dago.

*Canal Plus*en estrenaldia Bartzelona eta Madrilen ezin hobea izan zen. Lehen egunean irabazi egin zuen audientziaren gerra, "*Indiana Jones eta arka galduaren bila*" filmeari esker. Robert Redfordek ezin izan zuen ezer egin TVEen "*Peligrosamente juntos*" filmearekin. Aurrerantzean, zinezaleok ondo aukertu behar izango dugu zer ikusi, egun osoan zehar teleari itsatsita egon gura ez badugu.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Kirolak:** Ostiralean, gaueko 11,30etan, *Super Match* saioaren barruan boxeoa: munduko junior-Walter txapelketa. Larunbatean, arratsaldeko 3,15etan NBA ligako saskibaloia partidua; arratsaldeko 8etan berriz, Osasuna-Valencia taldeen arteko norgehiagoka Sadaurretik. Bukatzeko, igandean Caja San Fernando eta Clesa saskibaloia taldeak aurrez-aurre, arratsaldeko 6,15etan.

■ **Gizon Zarpaila:** Jack Fiskek zuzendutako filmea ostiral gauerako. 9etan emango da. Antzezle lanean Sissy Spacek, Eric Roberts eta Sam Shepard.

Testuingurua, Texasko herri txiki bat Bigarren Mundu Gerratean. Nitak, debortziaturik dagoen emakume gaztea, familia aurrera ateratzeko ahaleginetan dabil; bere bi semeek, osterara, arazoak aurkitzen dituzte herriko bizitzan sartzeko.

■ **Transylvania 6-5000:** Jack Harrison egunkari sare batean ari da lanean, eta Transylvaniara bidaliko dute Frankesteinen bizitza ikertzera. Hasieran herria nahiko lasaia iruditzen zaio, baina laster ideiaz aldatuko ere. Rudy Delucaren pelikula, igandean, 15,15etan. Antzezleak, Jeff Goldblum, Joseph Bologna eta Ed Begley.

bideoak



Ugaztunen agerpena

Ugaztunek eboluzioaren produkturik moldagarrienetakoa direla frogatu dute. Orain 200 milioi urte agertu ziren. Denbora joan ahala, eme ugaztunek kumeak bero eta elikatuak gordezko zenbait bide garatu zuten.

Geofisikaren gorabeherak medio, kontinente bakoitzean espezie desberdinak garatzeko aukera izan zuten.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala


3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



Datorren ostiralean, gaueko 8:45ean inguru, Musikantoi saioa ikusteko aukera izango duzue. Hona hemen programa aurrera daraman talde kementsua: *Asier Bergaretxe, Mikel Irizar, Patxi Montero* eta *Pepe Arregi*. Musika gustoko baduzu, hauxe duzu zeure programa. Ostiralera arte, edo nahiago baduzu, larunbat eguardirarte.



Astlehenean ikusiko dugun **Saltsa-maltsan** saioan *Maite Altuna* sukaldari trebeak Txarrankak eta pellak prestatuko dizkigu kamara aurrean, *Karmele Zuazubiskar* lagun duelarik.

PROGRAMAZIOA

ASTELEHENA

8: 00 Berriak
8::15 Mondrasport
8:50 Saltsa Maltsan

ASTEAZKENA

8:00 Berriak

OSTIRALA

8: 00 Berriak
8:15 Erretratoa
8:55 Musikantoi

LARUNBATA

12:00 Bezperako saioaren errepikaldia

Erretratoa herriko pertsonaia bati egingo zaion elkarrizketa da. Ek aurkeztuko du ostiralero. *Berriak* saioaren ostean. Lehen saiorako *Jose Antonio Altuna* "Txatillo" alkateohi eta enpresaria ekarri digu. Elkarrizketa atsegín eta mamitsua.



Otolora 2, ARRASATE

EDERRA

Iturriotz kalea 12, Tfnoa: 79 96 25



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Zer edo zeri ekiten diozunean burubelarrari aritzen zara eta beste eginbeharrak alde batera lagatzen dituzu.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Zeurekoi ari zara jokatzeko. Portaera horrekin besteak zugandik aldentzea baino ez duzu lortu, eta bakarti sentitzen zara. Ez ahaztu besteak ere hor izaten direnik.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Berba abstraktuak erabiltzeko joera daukazu edozeinekin. Honek gaizki ulertuak baino ez dizkizu ekarriko.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Balio handiko pertsona zarela ikustaraztea da benetan kezkatzen zaituena. Atsegina eta errespetagarria izaten saiatzen zara. Zaren bezalakoa zarela ere, onartu zaituzte.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

aPertsona lasaia izateko itxura azaltzen baduzu ere, urduria zara, besteak ez igartzeko, tartean langa bat jartzea komeni zaizu, bestela gurpil zoroetan murgilduta ibiliko zara.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Aspaldiko lagun horrekin adiskidetzeko komeni zaizu zure helburua lortzeko. Borondaterik azaltzen den bitartean edozer lor daiteke.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Nortasun gorabehera handiak daukazu eta besteak ez dakite nola asmatu zurekin. Eginbehar asko daukazu eskuartean. Ez larritu, aterako dituzte aurrera eta.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Edozeren alde ona eta txarra aztertzeko gauza zara eta aste honetan laguntza eske etorriko zaizu norbait. Aholkuak ematera bakarrik mugatu eta ez hartu partetik inongo ekintzatan.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Gauza berri eta originaletara joko duzu. Ilargiak, zeinu honetatik pasatzean, gizalegea eta arrazionamenduak indartu dizkizu eta lagunarteko harremanak sendotuko.




CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Irudimenik ez zaizu falta eta amets hutsean baino geldituko ez den egitura handiko negozio batean ari zara nekea alperrik galtzen. Hobe da oinez eta segurora eta ez zaldiz eta zulora, Cancer.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Txikikeriatan ez bada ere, erruz gastatzen duzu dirua. Zure posibilitateak eta beharrak zenbaterainokoak diren neurtzen ikastea komeni zaizu Eskorpio.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Sekulako bizitasuna eta borondatea igarriko duzu. Eguzkia piszisen esparruan sartu bait da. Konzienteki izango ez bada ere, geldotasuna alde batera laga eta aurrera egiten saiatu.

LAGUNDU EUSKALDUNTZEN!



Kanpaina honetan parte hartuz, euskara ikasten lagunduko diozu pertsona bati eta, gainera, Eusko Jaurlaritzak 50.000 pezeta emango dizu ordainez.

Informazio gehiago nahi baduzu, dei Udaletxera (Euskara Zerbitzua)

**HARTU ZURE ETXEAN
EUSKARA IKASLE BAT!**

Udaleko Euskara
Batzordea

**ARRASATEKO,
ESKOLA PUBLIKOETAKO
MATRIKULA-EPEA IREKI DA**

Martxoaren 5etik 16ra

HEZKUNTZA EREDUAK:

• **D EREDUA:**

IKASKETA GUZTIAK EUSKARA HUTSEAN

• **B. EREDUA:**

HEZKUNTZA ELEBIDUNA

Hezkuntza partehartzailea, zientifikoa,
sortzailea, integrala, euskalduna,
arrasatearra,
eta DOAN.

**Informazioa osatu nahi baduzu, ikastorduetan eskolara etor
zaitezke, dei ezazu telefonoz:**

ERGUIN79 77 74
S. ANDRES79 00 44
FERIXALEKUA79 05 53
MUSAKOLA79 04 49



ARRASATE IKASTOLA

IKASTOLAN SARTZEKO ESKAERA 1990-1991 ikasturtea

Arrasateko "SAN FRANTZISKO XABIER" Ikastolak 1.990-1.991 ikasturteko izenemate epea ireki du. Inskripzio orriarekin batera, argibide batzuk eta eskaintzen ditugun prestazioen berri ematen dizuegu:

* Ezaugarri orokorrak:

- Eskolaurretik O.H.O. 8. maila ikasketaldia.
- 16 urte arte luzatzeko asmoa.
- Auzoetan kokatua ikastaldia.

* Ezaugarri pedagogikoak:

- Ekipo pedagogiko sendo eta eraginkorra, hainbat proiektu aurrera eramateko:
 - Irakaskuntzaren Erreforma: —16 urte arteko luzapena
— Irakaslegoaren prestakuntza
 - Murgiltze-Plana: erdeldunak euskalduntzeko metodo aproposa
 - Ingeleseko irakaskuntza 1go mailatik aurrera.
 - Ordenadorearen erabilpena maila guztietan
- Psikologi departamentua:
 - Apendizai arazoaren detekzio goiztiarra eta diagnostikoa.
 - Laguntza-gelak.
 - Hezkuntza bereziari alternatiba desberdinak.
- Erakusteko ereduak:
 - D ereduak: jatorriz euskara duten ikasleentzat.
 - Murgiltze-eredua: jatorriz erdera duen ikasleentzat.
- Geletan haur kopuru txikia.

* Eskolaz kanpoko ekintzak:

- Abesbatza.
- Kirolak.
- Tailerrak.

* Zenbait zerbitzu:

- GARRAIOA: Gesalibar, Garagartza eta Beneras auzoetako ikasleek autobus-zerbitzua izango dute.

Izenak emateko epea: martxoaren 5etik 16ra
Izenak emateko tokia: GAZTELUONDO (Ikastola berria)
Ordua: 4etatik 6etara.